

# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11 / 736. zenbakia



Fagorreko langileen ideiak, proposamenak, ekimenak... batu nahi dituzte, lanpostuak bultzatzen segitzeko.

IKER BARANDIARAN

**EKONOMIA/** Langileak ekintzaile izan daitezten

## Lanpostuak gordetzeko ekimena bultzatu gura dute

UBANE MADERA

Fagor Taldeko Kontseilu Sozialak egin dio proposamena Fagorreko Kontseilu Orokorrari. Langileak ekintzaile izateko ekimena abiarazi gura dute. Intraekintzailtza Egitasmoa du izena. Saiolanek eta Azaroa Fundazioak bultzatutakoa da, Jaurilaritzaren babesarekin.

Bi proposamen nagusi ditu Fagorren bultzatu gura duten ekimen horrek: "Fagor Taldeko langileak inplikatzeko enpresa promozioarekin lotutako proposamenen bitartez, lanpostuak sortzen laguntzeko". Edo bestela esanda, enpresaren bat edo produkturen bat sortzeko langileen ideiak eta ekimenak batzea. Hala aurkeztu du Fagorreko Kontseilu Sozialak Kontseilu Orokorrari egindako eskaeran. Halaber, proposatzen dute esperientzia hori taldeko enpresa batean hastea, eta emaitza positiboak lortuz gero, beste-lako enpresetara zabaltzea.

**SASOI LATZAK**

Lehen esandako moduan, Saiolanek eta Azaroa Fundazioak egin

dute Intraekintzailtza Egitasmoa bideratzeko proposamena. Fagorreko Kontseilu Sozialak beregan hartu eta Kontseilu Orokorrari proposatu dio Saiolanekin hitzarmena sinatzeko.

Kontseilu Sozialaren aktaren arabera, esperientzia hori bultzatzearen arrazoia da bizi dugun "ziurgabetasun testuingurua". Honako hauek dira ziurgabetasun hori eragiten duten arrazoiak: petrolioaren prezioa, lehengaien hornikuntzarako zailtasunak, lehengaien prezioen handitzea, merkatu berriak azaltzea, ekialdera hazten dabilela Europa, Asiatiko ekonomien sarrera...

**JARDUNBIDE BERRIAK**

Era berean, dio horrek guztiak eskatzen dituela jardunbide berriak, esaterako, produkzioen

deslokalizazioak, fabrikatzaile berriak, erosketak egitea kostu baxua duten herrietan... eta horrek, oro har, zaildu egiten duela lehiakorak izatea.

**EKOIZPENA HANDITU BEHAR**

Egoera hori Fagorrera ekarrita, Kontseilu Sozialean argi dute Fagorrek zenbait jarduera eskulan merkeagoa duten herrietara bideratzen dituela eta hala egiten jarraituko duela. Argi dute, baita ere, egoera berriei egokitzeko kostuak gutxitu beharko dituztela eta ekoizpena hobetu, materialetan zein eskulanean. Horren harira, Fagorrek egiten dituen hozkailuen produkzioaren zati bat kanpoan egin behar dutela-eta, aurreikusten dute aldi baterako zenbait lanpostu galdu egin daitzkeela Fagor Elektrotresnetan, eta akaso zenbait bazkide beste-lako lantegietara bideratu beharko dituztela.

Esandako guztiagatik, Fagorreko Kontseilu Sozialean uste dute, negozio berriak bultzatzeko lan egin behar dutela eta bestelako artean, argi dute erronka berriei erantzuteko zerbait egin beharko dutela "gure esparruan lanpostuak mantentzen lagunduko diguna".

*Fagorreko Kontseilu Sozialean uste dute negozio berriak bultzatzeko lan egin behar dutela*

## Presoen alde egingo dute korrika Behobia-Donostian

U.M.

Arrasateko, Aramaioko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako preso politiko guztien izenak eta zenbait iheslari politikorenak eman dituzte domekan jokatu den Behobia-Donostia maratoian.

Haien izenean korrika egingo dute ibarreko zenbait gazte boluntariok. "Preso eta iheslariak bizi duten egoera salatu eta eurengana hurbiltzea". Horixe da Portaloia elkarteak bideratutako ekimenaren helburua.

**KARTZELA POLITIKA ALDATZEKO**

Horrez gainera, hiru aldarrikapen egiteko ere aprobetxatuko dute domekako maratoi erdia: presoen senide eta lagunei elkartasuna adierazteko "Presoei ukatzen zaiz-

kien eskubideen ondorioz, zigor gehigarria jasaten dutelako". Hala azaldu zuten martitzeneko (hilak 8) prentsaurrekoan.

Eskatu zuten, baita ere, kartzela politika berehala aldatzea: "Euskal preso zein iheslari politikoen giza-eskubideen bortxaketak jarraitzea egun mantentzen den erabaki politiko baten ondorioa da". Gaineratutakoaren arabera, "erabaki horrek euskal presoen eskubide politikoak ezabatzea eta oinarrizko eskubideak etengabe eta era sistematikoan urratzea dakar (...) Kartzela politikak, eragile askok bere ahotan darabilten gatazkaren konponbidean lagungarri izan dadin, berehalako aldaketa behar du".

Bukatzeke, gizarteari gogorazti gura diote "konpromisoa mantendu behar dela"



AMAGOIA LASAGABASTER

Argazkian, Portaloia elkarteak martitzenean egin zuen prentsaurrekoa.

## LABUR

### Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Plataforma Mistoak batzarra deitu du

Martitzenean izango da, azaroaren 15ean, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Helburua zera da: "Jakinaraztea, lehenik eta behin, Arrasaten arazo sozial horren egoerari buruz egin den azterlana, egon dauden beharrik eta Herriko Jardun Plan bat egiteko egin diren proposamenak". Horrez gainera, gai horren gaineko eztabaida zabaldu gura

dute, iritzia jaso eta izan daitzkeen bestelako proposamenak batu.

Emakumeen kontrako indarkeria "bizi dugun gizartearen baitan, haren eremu eta arlo guztietan" gertatzen dela gogorazti ekarri dute eta horregatik eskatzen dute eragile sozialen partaidetza, "haren prebentzioa lortzeko behar den lana egiteko".

## Tito Perkaz arkitektoaren kaleratzea dela-eta, EA eta EBren azalpenak

U.M.

Eusko Alkartasunaren iritziz, EBk ez zuen benetako informazioa eman Tito Perkaz arkitektoaren auziaren gainean. "Joko politiko zikina" egiten dabiltzala salatu du EAK. Ezker Batuak erantzun dio EAren deklarazioek "errealitatearekin zerikusirik" ez dutela eta "oinarri bakoak" direla.

Lau puntutan, zera dio EAren idatziak: batetik, arkitektoari eman beharreko kalte-ordainaren kopuru zehatza oraindik zehaztu barik dagoela, "dagokionean aginduko du EAeko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak".

Bestetik, dio EAK, EAJk eta PSE-EEk arkitektoa ez onartzeko erabakia hartu zutela "bestelako aspektuen aurretik herritarrari begira zuen jarrera baloratu zutelako". Eta balorazio hori oinarritu zutela "Hirigintza eta Obra Saileko buruak aurkeztutako txostenen; han Gaizki batekin baloratu zuten aspektu hori". Gaineratu dute txosten beraren arabera, "azkenean zinegotzi bakoitzak baloratu beharko duela kontuan hartu beharreko aspektu garrantzitsuenak zeintzuk diren".

Gainera, EAKo taldearen ustez, "EAKo zinegotziek irizpide zuzenarekin jokatu zuten, hura ez zen kazike jarrera izan ezta ere *sorgin-hiza* eta ez zuten kanpoko presioen eraginagatik egin". EAKo zinegotzietan babesa ere erakusten die.

Eta bukatzeko, dio "joko politiko zikina" egin duela EBk eta



Udaleko EA, EAJ eta EB talde politikoak dabilta arkitektoaren gainean eztabaidan.

ondo dagoela zenbaitetan elkarrekin ados ez egotea eta beharrezkoa denean kontra egitea ere bai, baina beti, egi osoa esanda.

### EZKER BATUAREN ERANTZUNA

EAren esanei erantzuten, Ezker Batuak, besteak beste, akusatzen du EA "erabaki arbitrario bat eta alde aurretik hartutakoa babesteagatik". Gogorarazten du Hirigintzako txostenak *Nahiko altu* batekin baloratu zuela Tito Perkaz arkitektoa. Baita ere, arkitektoaren kaleratzea anulatu zuen sententzian "gaitzespen argiak" zuela Arrasateko udal gobernuak hartutako erabakiarengatik. Gaineratu du sententzia hark adierazi zuela ez zirela "gauza izan fro-

gatzeko arkitektoaren kaleratze irregularra egiteko arrazoiak".

Zera ere badio: "Arkitektoak izan zuen ustezko okerreko jarrera izan zen hark ez onartzea inori faborezko tratirik ematea eta ahalegindu zen hirigintzako arauak betetzen, eta zenbait eragilek hori ez zuten ondo ikusi (...) Benetako botere faktikoak ziren eragile horiek".

Bukatzeko, besteak beste, EBren ustez "harrigarria da EAEko Auzitegi Gorenarendako arbitrarioa dena EArendako justua izatea. Baita ere esatea ez dutela ardurarik, nahiz eta arkitektoari ordaindu beharreko kalte-ordaina guztion dirutik atera beharko den".

Arrasateko  
euskalgintza

## Ines Aldai: "Euskara maite eta defendatzen dut"

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Ines Aldai zinegotziaren esperientzia dugu berbagai. Kontatu digu bizitzan, batzuetan, euskara gutxi erabili duela, etxean zein eskolan; eta orain, berriz, euskaraz bizitzen ahalegintzen dela.

"Mojetatik fraideetara pasa nintzenez "abertzale" fasea eduki nuen, baina janzkeran bakarrik. Modan zegoen alkandora zuria eta mahoizko prakak janzten nituen. Jaiez jai joaten ginen euskal talde guztien atzetik eta festibaletan lehenengo lerroan jartzen ginen.

COU egin nueneko udan (apropos jarri dut COU eta ez UBI, ikasketak erdaraz egin ditudalako) euskara ikastaro bat egin nuen, Elduaienen. Aurreko urtean ahizpa bat egon zen D titulua ateratzeko prestatzen. Ni ez nintzen joan tituluaerengatik. Euskara berreskuratu nahi nuen. Ahizpak inbidia ematen zidan amarekin euskaraz hitz egiten zuenean. Hizkuntza goxoagoa iruditzen zitzaidan eta nik ere hala mintzatu nahi nuen. Gero Bilbora joan nintzen kimika ikastera. Ez nintzen etortzen Arrasatera astebururo, hilean behin edo bitan, baizik; hasieran ikasi egin nahi nuelako eta gero lagunak topatu eta hobeto pasatzen nuelako Bilbon. Lagun gehienak erdaldunak ziren eta euskara galdu nuen. Uda horretan bueltatu nintzen Elduaienera,

baina ezberdina izan zen. Jendeak titulua zuen buruan eta nahiz eta oso ondo pasatu, ez nuen sentitu aurreko urteko emozioa. Berritro Bilbora bueltatu, gero eta gutxiagoan Arrasatera etorri, eta euskara guztiz galdu nuen.

Ikasketak bukatu nituenen, niri ere, *titulitis*-a sartu zitzaidan eta euskara ikastea lan bat bezala hartu nuen. Titulua atera eta etxera bueltatu nintzen. Ez zitzaidan nahikoa iruditu eta EIT ere atera nuen.

Irakaskuntzan lana aurkitu nuen Azpeitian, eta gero Arrasaten, SFX ikastolan. Oso hasiera gogorra izan zen, eskerrak lan-kideen laguntza eduki nuen, behin baino gehiagotan uzteko gogoia izan nuen-eta.

Baina kaleko giroa erdalduna nuen. Euskal hiztegiaren aberastasuna galtzen nenebela konturatu nintzen, lanean euskaraz bizi arren zientzia eskolek ez dizute hiztegia zabaltzeko aukera handirik ematen-eta. Astean behin Donostiara joaten hasi nintzen, irakasle lagun baten-gana eta poliki-poliki, euskararekiko konfiantza lortu nuen."

## LABUR

### 5.102 kilo jaki batu dituzte Hiper Eroskin, Gipuzkoako behartsuenen artean banatzeko

Gipuzkoako Bankuak bultzatu zuen jaki bilketa, urriaren erdialdean. Eta pozik daude aurten lortutako 5.102 kiloko emaitzarekin; izan ere, iaz baino tona bat gehiago batu dute eta orain dela bi urte baino tona bi gehiago. Oro

har, galtzen ez diren elikagaiak batzen dituzte: arroza, pasta, lekiariak... Herritarrek eramandakoak dira; eta horrez gainera, gehien batu duten produktuaren (aurten, arroza) bikoitza eman du Eroskik berak, aurten oliotan.

### Asfamogik badu telefono zenbakia

Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkarteak (Asfamogi, espainolez) Arrasaten bulegoa ipini berri du, ibar osorako. Bada orain jakinarazi digute badutela telefono zenbakia; honako hauxe: 943 77 20 76.



# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

# Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50



## Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak  
Ibilgailuak  
Stand-ak  
Itsasgarriak  
Biniloa  
Seinaleak  
Lonak  
Erliebendun hizkiak

OSOKO BILKURA BEREZIA / Kultura etxearen lanen gaineko eztabaida, bilkurako "izar"

# Kultura etxeko proiektuaren aldaketa onetsi eta gero, berriro hasi dira lanak egiten

UBANE MADERA

Oposizioarekin desadostasun handiak izan arren, udalbatzak onartu egin du kultura etxearen proiektuaren bigarren aldaketa. Hala, onartu egin du argizuloa egitea eta komentuen beste zati bat erostea. Gauzak horrela, astelehenean hasi zituzten berriro lanak.

Haserre handia erakutsi zuen oposizioak joan den asteko osoko bilkura berezian, kultura etxearen gaia dela-eta. PSE-EEko eta PPko ordezkariak berretsi egin zituzten irregulartasun eta iluntasun salaketak. Oro har, salatu zuten ez dela legezkoa obra batzuk egitea osoko bilkuraren onespina barik. Salatu zuten, baita ere, udal gobernuak osoko bilkuraren onespina eskatu duela orain, kultura etxeko obra horiek eginda daudenean. Hain zuzen ere, argizuloaren gainean eta Udalak erosi berri duen frantziskotarren komentuen zatiari dagozkion obraren gainean egin zituzten salaketa horiek.

## PSE-EE PROZEDURAREN KONTRA

PSE-EEren izenean, Paco Gartzia nabarmendu zuen talde politiko hori kultura etxearen alde dagoela, baina ez dagoela obrak egiteko erabilitako prozeduraren alde: "Prozedura guztia egin da jakinaren gainean, maltzurkeriaz eta ezkutuan". Halaber, salatu zuen, besteak beste, berak eskatutako informazioa (kasu honetan, obraren argazkiak) ez diotela eman. Eta jakinarazi zuen Legebiltzarrean eskatuko dutela Kontu Auzitegiak azter dezala kultura etxearen kasua: "Prozedura ilegala eta irregularra da, gure ustez; eta gainera, hala berretsi du uztailan idazkaritzak egin zuen txosten batek eta baita gaur (eguna) ere; eta osoko bilkuran esan dudana moduan, Kontu Auzitegiari eskatuko diogu egoera azter dezan (...). Bestalde, esan beharra dago alkateak, udal gobernuarekin batera, Ikerketa batzordea eratzeari uko egin diola".

## INFORMAZIO GABEZIA, PP-REN USTEZ

PPren izenean, berriz, Itziar Lamarainek salatu zuen behin eta berriro eskatu izan duela obra horien gaineko informazioa eta beti zehaztugabeko erantzunak eman dizkiotela. Halaber, osoko bilkuran eskatu zion Hirigintza Saileko teknikari buruari aurkez diezazkiola kultura etxeko obraren orain arteko ziurtagiriak. Lamarainek gura duena da ikusi ea Udalak ordaindu dien obrakoei osoko bilkurak orain arte onartu barik zituen lanetarako batzuk. PPko bozeramaileak jakinarazi zuen hala izanez gero kontu-hartzailearengana joko duela datu



MIKEL LUPIAÑEZ

Uztailaz geroztik geldirik egon eta gero lanean hasi dira berriro; orain asmoa da 2006ko uztailaren 31rako bukatzea kultura etxeko lanak.

horrekin: "Doan ez zuten egingo, bada; kobratu egingo zuten. Eta hori justifikatzen bada, Udalak horren gaineko ziurtagiriak ordaindu dituela, espero dut ezetz, gehiegizkoa litzateke".

Oraingo udal gobernuaren jarduna lehengoarena baino okerragoa dela ere gehitu zuen PPk: "Esan beharra dut bestelako lege-gintzalditan izan diren kideek esan didatenez, desadostasun ideologikoak izan arren, Herri Batasunak izan zuen alkatetzan garrantasun dezente handiagoa izan zela. Eta EAJk egitea egiten dabi-

lena beldurgarria iruditzen zait. Nondik gobernatzen dute Udala, Iturriotik? Izan ere, Udalean ez dugu ezere berririk".

## UDAL GOBERNUAREN IDATZIA

Salaketa horien guztien aurrean, komunikatu luzea irakurri zuen alkateak udal gobernuaren (EAJ, EA, EB eta Aralar) izenean. Laburbilduz, zera esan zuen: obraren exekuzioaren ondorioz egin diren aurrekontu handitzeen artean, bakarra da udal gobernu taldearen erabakiaren ondorioa: argizuloarena (191.825,01

euro). Gainontzekoak eraikinarren egiturazko hutsuneei aurre egiteko egin ziren (aurreko udal taldearen sasoikoak dira). Bestalde, dio Udalaren hasierako asmoa zela komentua oso-osorik eskuratzea udal erabilerarako eta helburu horrekin erosi dietela frantziskotarrei komentuen beste zati bat. Horren harira, zera gehitu zuen: "Lehengo udalbatzarrek eskainitako edozein eskaintza ekonomiko izango litzateke oraingo Udalak adostutakoa baino handiagoa". Azalpen moduan, dio 99an frantziskota-

rrekin sinatu zuten hitzarmenaren arabera orain eskuratu dituzten 944 m<sup>2</sup>-ak ordaintzeko beste etxe edo eraikinen bat eman beharko liekeela trukean; orain, aldiz, 601.000 euro ordainduko dutela.

Salaketei dagokionez, berriz, (irregulartasun, iluntasun salaketak, zuzenean egindako adjudikazioen salaketak...) zera esan zuen: "Udal talde honen ustez, errealtatea manipulatu eta distortsionatu gura duten oposizio taldeen borondateari erantzuten diote, talde politiko horien interes alderdikariei, komunikabideen oihartzuna aprobetxatuta".

Bestalde, hutsune bat izan dutela onartu zuen: "Zenbait obra aurreratzea osoko bilkurak Bigarren Proiektu Aldatua onartu aurretik, baina argi izan dugu beti obra horiek osoko bilkuraren babesa bazutela, hala adierazi zuen osokoak 2005erako aurrekontuak onartu zituenean". Hala, alkateak dio obrak legezkoak direla: "Gure kontsultaren ondorioak argi daude, gure aholkularitza juridikoaren bitartez. Jaurilaritza ere galdu du. Guztiz legezkoa da".

Ikerketa batzordeari uko egitearen arrazoia ere azaldu zigan: "Ez dago Ikerketa batzorderik korporazio lokaletan. Dioguna da Hirigintza batzordean egin dezatela gai zerrenda espezifikoa gai horrekin eta han aterata dezatela nahi duten guztia. Horrez gainera, daude Kontu Auzitegia eta auditoria. Zer gehiago egin behar dugu?".

## Lau mozio onartu zituen udalbatzarrak

Kultura etxeko lanez gainera, bestelakoak ere landu zituzten bilkura berezian. Tartean, lau mozio onartu zituen udalbatzarrak.

Batetik, Jon Agirre presoaren gaineko mozioa onartu zuten EAJk, EAk eta EBk babestuta. PSE-EEk eta PPk kontra bozkatu zuten. Oro har, eskatu zuten Jon Agirrerri libre utzi dezatela 92. artikulua aplikatuta. Hori eskatzeko esan zuten Agirrerren osasun egoera larria dela, eta gainera, orain dela hamar urte bete zituela zigorraren hiru laurdenak. PSE-EEren izenean, Paco Gartzia kontrako botoa arrazoitu zuen esanez hirugarren gradua lortzeko presoak damua erakutsi behar duela eta preso horrek ez duela halakorik egin. Gehitu zuen argi utzi nahi duela herri honetan ez dagoela preso politikorik. Bestalde, azaroren 25ean Emakumeen-

ganako Indarkeriaren Kontrako Eguna dela-eta, Emakundek aurkeztutako manifestua onartu egin zuten, aho batez.

Horrez gainera, pobreziaren gaineko mozio bat ere onartu zuten, kasu horretan ere, oposizioaren kontrako botoekin. Aralarrek aurkeztu zuen mozioa. Besteak beste, eskatu zuen Estatuko gastu militarretan Euskadiri dagokion zatia (2005ean, 1.534 milioi euro) pobreziari aurre egiteko erabiltzea. Horren kontra PSE-EEk esan zuen gaur egun armadak laguntza humanitarioa ematen duela eta "bakerako armada dela". Zera ere esan zuen, besteak beste: "Gogora ekarri gura dut orain dela gutxira arte hiltzen zuten armada baten alde zegoela Aralar".

Bukatzean, PSE-EEk eskatuta, onartu egin zuten Heriotza Zigorraren Kontrako Munduko Koalizioan sartzea Udala.

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 11**  
Azkoaga. Iturriotz 17 . . . . . 943 79 79 99
- ZAPATUA, 12**  
Corcuera. M. Aranbarri 1 . . . . . 943 79 22 26
- DOMEKA, 13**  
Irizar. Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 14**  
Amezua. Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74
- MARTITZENA, 15**  
Español. Araba etorb. 14 . . . . . 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 16**  
Ruiz. Maala 31 . . . . . 943 79 14 09
- EGUENA, 17**  
Zabala. Zarugalde 42 . . . . . 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 18**  
Azkoaga. Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . . . 943 03 53 00  
Iguualatorioa . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelenehenetik egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . . . egun osoa
- Arrasate**  
Astelenehenetik egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44
- ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088
- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44
- GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuaren egoitza . . . . . 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

- |   |   |
|---|---|
| <b>San Juan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                  | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                           |
| Domeka<br>09:00 meza nagusia<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)        | Domeka<br>10:00 (gaztelaz)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)             |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                               | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Domeka<br>12:30 (gaztelaniaz)                        |
| Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (elebiduna)<br>12:30 (elebiduna)<br>19:00 (elebiduna) | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz) |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                  | Domeka<br>11:00 (elebiduna)   |
| Domeka<br>12:00 (elebiduna)   | <b>San Isidro</b><br>Domeka<br>12:30 (gaztelaniaz)                                |

**OHARRAK**

**TXIKILANDIARAKO BEGIRALEAK**  
Martitzena, hilaren 15a, izango da Txikilandia Gabonetako parkean izena emateko azkeneko eguna. Begirale lana egin gura dutenek jo dezatela Txatxilipurdira edo deitu dezatela honako telefono zenbakira: 943 79 54 46.

**IPIIN KONTAKETA LUDOTEKAN**  
Datorren egubakoitzean, hilaren 18an, Sahararen gaineko ipuin kontaketa egingo dute Okendoko ludotekan. 18:00etan egingo dute, eta Txatxilipurdik antolatu du.

**JOSTAILU TRUKE MERKATUA**  
Txatxilipurdik jostailu truke merkatua egingo du abenduaren 16, 17 eta 18an. Hori baino lehenago, jostailuak jasotzeko mahaiak jarriko ditu eguazteneo auzoetan; eta egubakoitzetan, Seber Altuben. Biak hala biak 17:00etatik 18:30era bitartean izango dira.

**LUDOTEKA IBILTARIA**  
Bihar, zapatua, San Andresko gazte txokoa, 11:00etatik 13:30era.

**KONTZERTUA 3.60 ARETOAN**  
Bihar, zapatua, Jukebox talde arrasatearrak eta Potemkin talde oñatiarrak kontzertua, 23:00etan.

**AEDrenAGENDA**

**SEASKAKO EGUTEGIAK**  
Urtero moduan, Seaskak egutegiak kaleratu ditu. Dagoeneko heldu dira 2006koak AEDra eta han (Pablo Urangan) salgai dituzte 3 eurotan.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Tren geltoki zaharreko lanak bukatzeaz**

Langile profesionalek hartu zuten tren geltoki zaharreko lanak bukatzeko ardura. Ordu-ra arte lanbide heziketako eskolako ikasleak ibili ziren zeregin horretan. INEMek, Mankomunitateak eta Udalak elkarlanean esku hartu zuten geltokiaren berritze proiektuan.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Puntuaren bein”*



— Nik aura puntuaren bein ikusten dot mozkortuta.

JON IRAEGI

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Martitzena, 8 **1°C**

**MAXIMOA**  
Eguaztena, 2 **20°C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)** **39,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	20 °C	15 °C	- l/m²
Eguena, 3	20 °C	15 °C	17,5 l/m²
Egubakoitza, 4	13 °C	10 °C	0,7 l/m²
Zapatua, 5	17 °C	7 °C	- l/m²
Domeka, 6	19 °C	5 °C	- l/m²
Astelehena, 7	20 °C	2 °C	- l/m²
Martitzena, 8	19 °C	1 °C	21,5 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Etxebizitzak merkaturatzeko Bizigune programaren ganean, 'Asteko gainbegiratu'-n**

Hutsik edo erabili barik dauden etxebizitzak merkaturatzea du helburu Eusko Jaurlaritzak hainbat udalekin elkarlanean abian jarritako Bizigune programak. Etxeen jabe eta maizterrendako, biendako, onurak ditu Bizigune egitasmoak. Horrela azaldu digu Arrasateko Udaleko Etxebizitza Saileko teknikari Nerea Lazpiurrek.

Etxebizitza kontuekin batera, ardo kontuak ere batuko ditugu Arabako Errioxan bizi eta lan egiten duen Nagore Etxeba-

rriarteun arrasatearrarekin. Paganos herriko Garcia de Olano upeltegira joango gara.

**ZORION AGURREN GELTOKIA**


Egunero hurbiltzen da 107.7ko autobusa zorion agurren geltokira, han amaitzen dugu-eta uhinetako autobusaren eguneroko ibilbidea. Entzuleok parte-hartze zuzena duzen geltokia da, lagun, lankide edo senideengana heldu gura dugu-eta. Bi modu dituzue: 943 71 17 31 telefono zenbakiaren bidez edo [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 Asteko gainbegiratu.  
Nerea Lazpiur, Nagore Etxebarriarteun; Mingaina Dantzan geltokian, Lurdes Umerez eskultorea; Lorategia geltokian, Udazkeneko inausketen ganean...
- DOMEKA**  
10:00 Asteko gainbegiratu.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).  
Elkarrizketak.  
Meteorologiaren geltokia.  
Ibili munduan geltokia.  
Zorion agurrak.  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

## KALEINKESTA/ Frantzian pasetan dabillenagatik arduratute? Hamen pasauko da holakorik?



**AITOR ZINKUNEGI**  
Ikasle

Arduratu bai, Saharan edo munduko beste leku batzuetan pasetan dien gauzak moduen. Kapitalismuen sistemiek sortutako problemie da hori. Hamen ez dau horrenbeste auzo marjinal.




**MARIA EUGENIA MIELGO**  
Langillie

Arduratute nau, bai. Neuk be ez dakit zein dan problemie, telebisiñuen be ez daue-eta gauzak argi esaten. Pentsetan dot integraziño faltie izengo dala. Batek daki hona aillegauko dan.



**IÑIGO JIMENEZ**  
Langillie

Bueno, arduratu... Bistan dau kanbixoren bat biher dauela, eta politikuek ez badaue ezer egitten kalien egin biherko da burrukan. Biherra eukiko daue holakuek egitteko.



**MANUEL PRIMOY**  
Langillie

Arduratute nau, bai. Ez dot pentsetan istillu horreik kasualidadie dienik; gobiernue gauzak txarto egitten dabilrelako dabitx holaxe jokaketan; atzerritarrak egoera txarrien dauz.



**NEKANE AÑORGA**  
Langillie

Oso arduratute nau, eta ez dakit konponbiderik dauen. Integraziño faltie dau atzien, problema sozial haundixe. Europa maillan egon biher dan problemie da, eta posible da hona be aillegetie.



**AFRIKA MARTEATXE**  
Erretiraue

Nahiko arduratute nau, bai. Nik ez dot konponbide errazik ikusten. Baztartute dauz, baiñe ez dot uste eurak be ondo integretan dienik. Geruau etorri leike problema hori hona.

### USTEAKUSTE

#### Oñati

**P**aristik datoz gerra danbor soinuak eta baliteke, zeinek daki, Europa osoan zabal-tzea. Hori dago azken egunotan askoren ahotan. Gutxien dutenak, etorkinak, matxina-tu egin dira. Hori egi egur gehiago eman beharrean, beste irtenbide bat aurkitu beharko dute, behin betikoa.


Gugandik askoz gertuago, Oñatin, Udalak gaztetxea eraitsi du astean, eta gazteei ez die beste ezer eskaini. Tristea da horrela jokatzea. Oñatiko agintariek inguruko herrietara begiratzea besterik ez dute egin behar erratuta daudela jakiteko: Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan, Antzuolan eta Elgetan gazteak eta udalak ados jarri dira, eta elkarbizitza lortu dute.

Oñatin, ez. Udalak behin eta berriro esan du gazteendako gaztelekua duela. Baina, uztailean Casablancako gaztetxea okupatu zuten gazteetako asko gaztelekuaren erabiltzaileak (izan) dira eta gustura zebiltzan gaztelekuan gauzak antolatzen, Udalak gazteen esku-hartzea oztopatu eta handik bota zituen arte.

Udaletxean gehiengo absolutua duten arren, ezingo dituzte gazteak mendean hartu, horiek Udalaren jarrera eskasaz aspertu direlako. Besarkada bat Oñatiko gazte horiei.

IKER BARANDIARAN

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK APARKALEKUAREN SARBIDEKO LANAK** Garibai etorbidean bizi den lagun batek esan digu oso haserre dagoela udal aparkalekuko sarbide berria egiteko lanak gelditu daudelako. "Lan horren inguruan jarri dituzten babesgarri handiek oinezkoen bidea oztopatzen dute, eta luzaroan dago horrela. Hain zuzen ere, lan horiek gelditu daude azken bi hilabeteotan". Joan den hilabetean lagun horrek Udaletxera deitu zuen lanen inguruko babesgarria txikitu zezaten, "baina ez didate inolako jaramonik egin".

### ASTEKODATUA

5

**ASTEBURUTAN EGINGO DITUZTE GAZTE ASTEBURUAK**

Arrasateko Gazteen Kontseiluak Gazte Asteburuak antolatu ditu. Bihartik, zapatua, abenduaren 17ra bitartean egitarau mardula egingo dute. Mendi ibilaldia, trikitixa, umeendako ekintzak, pintxo lehiaketa, kale animazioa, kontzertuak... egingo dituzte.

### HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



#### Kataluniarren estatutu berria

**Z**elako iskanbila sortu dute Katalunian estatutu berriaren eragileek. Inposatutako legalitatea onartzeko prest dauden estatutu berriaren lehen artikuluan Katalunia nazio bat dela aldarrikatu dute. Eta inperioko zeruan trumoiak, ekaitzak eta tximistak batera agertu dira. Jakina, holako baieztapenarekin bigarren trantsizioaren funtsean eta gatazka politikoa- ren gakoan dagoen espainiar estatuko nazional anitzaren izaera agerian itxi dute.

Asaldatau dira frankistekin eta armadarekin hitzartuz 78ko Espainiako Konstituzioa egin zutenek. Espainiako Konstituzioak daraman eraikuntza juridiko-politiko osoa Espainiar Nazional izaera bakarrean oinarritzen da. Nazionalista inperialista diren "ez nazionalista konstituzionalista" horiek "bestearen ukapena" juridikoki sustraitu zuten. Bost gizaldi-ko historian hainbeste herri, hizkuntza eta kultura ezabatu

eta sailkatu egin dituen espainiar nazionalismo arrazistak dago hemen ez nazionalista konstituzionalista diren egungo jarrera eta joeretan.

Aspaldi leporatzen diete kataluniarrei beraien herrietan beraien kultura mantentzea eta beraien herrietan beraien hizkuntza mintzatzeta. Hori baino larriago dena, bigarren motako hiritar izatea ez onartzea eta beraien hizkuntza Gaztelako hizkuntzaren parean ezartzea. Laburbilduz katalu-

niarrei leporatzen diete kataluniarrek izatea. Espainiako nazionalismoak gauzatutako kultura ofizialean mendekotasuna hezkuntza edo gizabidearekin identifikatzen da, eta kataluniar horiek gizabiderik gabeko jendea dira. Euskal Herrian ere bai mendekotasunaren aldeko kultura hori dauzkaten euskaldunak daude, eta kataluniarrei beraien herrian kataluniarrek izatea leporatzen dietenak.

**"Asaldatau dira frankistekin eta armadarekin hitzartuz 1978ko Espainiako Konstituzioa egin zutenek"**

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 11

Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Itsaso Berezibar  
Amaia Mundiñano  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaiñarain  
Añe Berezibar  
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK  
Mikel Lupiañez

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

Goiena  
Komunitario Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



URTZI BERASALUZE

Bardeek mendiko bizikletarekin ibiltzeko aukera ederra eskaintzen dute, paraje ezohikoetan, gainera.

# Mendiko bizikleta irteera antolatu dute Bardeetara

XABIER URTZELAI

Besaide Mendi Elkarteak mendiko bizikleta taldea osatu berri du, eta talde horretan dabilzanek dagoeneko antolatu dute lehenengo irteera, Bardeetara. Azaroaren 19ko eta 20ko asteburuan joango dira Nafarroara.

Zapatu goizean irtengo dira Arrasatetik, eta autobusean joango dira Bardeetaraino. Antolatzaileek espero dute eguerdi inguruan hasiko direla bizikletan, eta zapatuan bertan 40-50 kilometroko ibilbidea egingo dute. Izerdi batzuk bota eta, besteak

beste, Rallonera igo eta gero, Virgen del Yugoko aterpetxean hartuko dute ostatu, eta domekarako gertatuko dira, bigarren etapa egiteko. Domekakoa ez da irteera gogorragoa izango, beste 40-50 kilometro inguru.

## IRTEERAKO PREZIOAK

Ikasle direnen artean, Besaideko bazkide direnek 40 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 45 euro. Langileen artean, berriz, bazkideek 60 euro eta bazkide ez direnek 65 euro. Eta federatuta ez dagoenak (BTTko gehigarriaz) 5 euro gehiago ordaindu beharko ditu, aseguruarendako. Eta prezio horien barruan

egongo da Bardeetara joateko autobusa eta furgoneta, eta Virgen del Yugoko aterpetxean ostatua (zapatuko afaria eta domekako gosaria barne). Kontuan izan behar da ibilbidean zehar antolatzaileek ez dutela jatekorik emango; horrenbestez, jatekoak eta edatekoak norberaren kontu izango dira. Eta argi izan behar da Bardeetara ura eramatea komeni dela.

## ZELAN EMAN IZENA

Azaroaren 14an eta 15ean Besaideko egoitzara joanda, 19:30etik 20:30era arte. Edo bestela, helbide elektronikoko honetara idatzi, izen-abizenak eta telefonoa jarrita: besaidemtb@hotmail.com.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### PARTIDUAK

#### AZAROAK 12, ZAPATUA. EPAILEAK

10:00: Irish Pub. - HLB108. Berdes Brem.  
11:00: Berdes Bre. - Tomahawk. Irish Pub  
12:00: Aurrera Bolie - Iriztu Tab. Tomahawk  
13:00: AC Surcos - AT Celaya. Aurrera Bol.  
16:00: Betraye - Saukelu Scream. Txopon.  
17:00: Txoponbeixek - Arrano Tab. Betraye  
18:00: Billy & The Cowboys. - THC. Arrano.

#### AZAROAK 13, DOMEKA. EPAILEAK

11:00: Fuxxion - Iluntz. Lasagabaster  
12:00: Dribling - Lasagabaster. Iluntz  
13:00: Abokajarro - Pippol. Dribling

### SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Saukelu Scream	1	3
2. Betraye	1	3
3. Iriztu	1	3
4. Iluntz	1	3
5. Tomahawk	1	3
6. Dribling	1	3
7. AC Surcos	1	3
8. AT Celaya	1	3
9. Arrano Taberna	1	3
10. Fuxxion	1	1
11. Lasagabaster	1	1
12. Billy & The cowboys	1	0
13. Abokajarro	1	0
14. HLB 108	1	0
15. Irish Pub	1	0
16. THC	1	0
17. Aurrera Bolie	1	0
18. Txoponbeixek	1	0
19. Pippol	1	0
20. Berdes Bremen	1	0

## KIROLAGENDA

### JOKATZEKOAK

#### FUTBOLA

**Mondra - Zestoa**  
Preferentea. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.

**Sporting de Herrera - Mondra**  
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 15:30. Donostian.

**Usurbil - Arrasate**  
Big. Gazteak Zapatuan. 10:00. Donostian.

**Arrasate - Idiazabal**  
Kadeteak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

**Arrasate - Orioko**  
Infantilak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

**Eibartarrak - Arizmendi Arrasate**  
Kadete neskak F8. Domekan. 10:30. Eibarren.

**Lagun Onak - Arrasate**  
Alebinak. Domekan. 10:00. Azpeitian.

### SASKIBALOA

**Mugarri Alkesa Arrasate - Goierri Verkol**  
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

**Mugarri Alkesa - Graficas Ilba Zarautz**  
Juniorrak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

**Mugarri Alkesa Arrasate - Iraurgi**  
Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.

#### ESKUBALOAIA

**Soflan Elgoibar - Ford Mugarri Arrasate**  
Lehen Territ. Domekan. 11:00. Elgoibarren.

**Donibane - Arrasate**  
Bigarren Territ. Zapatuan. 16:30. Pasaian.

**Gatz Museoa Jakion - OET-KBL-OKE**  
Gazteak mut. Domekan. 13:00. Iturripen.

**Arrasate - Pulpo**  
Kadete neskak. Domekan. 10:00. Iturripen.

**Gatz Museoa Jakion - Elgoibar**  
Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ANTZERKIA/ Domekan, Biko taldearen 'Larru haizetara' antzezlana Amaia Udal Antzokian

## Sexuaren trikimailua erabilia, lan eskasia umorez jorratuko dute antzezlanean

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Biko antzerki taldeak *Larru haizetara* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da. Biko taldeak *Euskara sencilloaren manifestua* egin zuen iaz, eta ikuskizuneko aktore berak abiapuntu hartu dituzte oraingoan.

Badirudi domekan barre sano egiteko aukera egongo dela Amaia Udal Antzokian. Hala aitortu dute Biko antzerki taldekoek. *Larru haizetara*, *sexu koadernoak* izenpean sexua erabiltzen dute ikusleak erakartzeko trikimailu moduan. Hala ere, gai serioago bat jarri gura dute berbagai: lan eskasia eta ezegonkortasuna, hain zuzen ere. Baina, lanaren gaineko hausnarketan sexuak garran-

tzia ere baduela aditzera eman dute. Izan ere, aktoreak sexuarekin obsesionatuta egongo dira eta lan kontuak baino sexua izango dute berbagai.

### BI GAI NAGUSI NAHASTUTA

Hortaz, bi gai nagusi uztartuko dituzte: batetik, lan egoera, gizartean integratzeko aukera eza eta *entxufismoa*; eta bestetik, "euskaldunei kalte handia egiten dien sexua", hain zuzen ere.

Egilea Patxo Telleria da, eta aktoreak honako hauek dira: Mikel Martinez, Jokin Oregi eta Patxo Telleria bera, hain zuzen ere. Zuzendari lanak, berriz, Jokin Oregik egin ditu.

Taldeko lagunek azpimarratu dute antzezlanean ikus-entzuzkoek garrantzia handia dutela; Logela Multimediako Imanol Garaizabal izan da arduraduna.



Aktore ezagun horiek barrea eragiten erraztasun handia dute.

ZARTZUELA/ Abenduaren 10, 11, 16 eta 17an, 'Baserria' zartzueta Amaia Udal Antzokian

## Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak 'El caserío' euskaraz egingo du abenduko lau egunetan



AITOR LIZARRALDE

Joan den urtean, *El huesped del sevillano* ikuskizuna egin zuen talde berak.

I.B.

Aurten Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak seigarren aldiz eskainiko du zartzueta Amaia Udal Antzokian. Iaz aditzera eman zuten moduan, aurten *El caserío* ospetsua euskaratu egin dute. Beste berrikuntza bat da orkestrako zuzendaria Alberto Saez izango dela.

Arrasaten izango da *El Caserío* euskaraz ikusiko den lehenengo aldia. Jesus Guridi konposatzaileak 1926an estreinatu zuen Madrilen, eta ordutik hainbat alditan eskaini dute munduan.

Orain dela hainbat urte Azpeitian hainbat lagunek zartzueta-ko abestiak euskaratu egin zituzten. Hala ere, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak izango da lan eza-

gun hori oso-osorik euskaraz eskainiko duen lehenengo taldea.

**SARRERAK ASTEBETE LEHENAGO SALGAI**  
Ikuskizuna abenduaren 10, 11, 16 eta 17an egingo dute Amaia Udal Antzokian, eta sarrerak astebete lehenago jarriko dituzte salgai.

Zuzendaria Tere Gonzalez izango da. Orkestrako zuzendaria, berriz, aldatu dute. Aurten Alfredo Chirlaquek ezin izan du ardura hori hartu, eta Mirandako (Burgos) Alberto Saezek ordezkatuko du.

Zartzueta eskua hartuko duten bakarlariak honako hauek izango dira: Cristina Cubillo (Ana Mari), Iñaki Olaizola (Osaba Santi), Tomas Axpe (Joxe Miel), Mikel Izurrategi (Txomin), Naroa Elortza (Iñosenzi) eta Mertxe Salaberri (Eustasi), hain zuzen ere.

### LABUR

#### Abenturazko film entretengarria emango dute

Gaur, egubakoitza, bihar eta astelehenean, *El secreto de los hermanos Grimm* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. 118 minutu iraten du eta Terry Gilliamek zuzendu du. Gilliam oso ezaguna da, telebistako *Monty Python's Flying Circus* saio ospetsuan esku hartu zuelako, eta hainbat film zuzendu dituelako (*Los caballeros de la mesa cuadrada y sus locos seguidores*, *Doce monos*, *Miedo y asco en Las Vegas...*).

Film horrek ez du iraganen egindako lanekin zerikusi handirik. Grimm anaiei gaineko istorio bat kontatzen du, eta fantasia eta abentura uztartzen ditu.

Grimm anaiak, Napoleonen garaian, aberasten saiatzen dira ustezko mamu eta sorginak hiltzen. Baina, Frantziako agintariek sorgindutako baso batera eramango dituzte.

Protagonistak honako hauek dira: Matt Damon (*Ocean's twelve*, *El indomable Will Hunting...*), Heath Ledger (*Monster's ball*, *Destino de caballero...*), Monica Bellucci (*Dracula*, *Malena*, *A los que aman...*) eta Peter Stormare (*Bailar en la oscuridad*, *9 días...*), besteak beste.

#### Espainiako Gerra sufritu zuten zortzi emakume, filmean

Datorren egunean, hilaren 17an, dokumental berezia emango dute Amaia Udal Antzokian: *Mujeres en pie de guerra*. 75 minutu irauten du eta Susana Kosta donostiarra izan da zuzendaria. Kostaren lehenengo lana izan da, eta gidoia ere berak idatzi du.

Film hori, azaroan eguneko zineklubean ematen dabiltzan gainontzekoak moduan Emakume Sailak aukeratu du, *Emakume zuzendariak*, *emakume protagonistak* zikloaren barruan.

Susana Kostak Espainiako Gerra eta frankismoa sufritu zuten zortzi emakume elkarriketatu ditu. Honako hauek, hain zuzen ere: Sara Berenguer, Maria Salvo, Rosa Laviña, Rosa Diaz, Neus Catala, Teresa Buigues, Carme eta Mercona Puig Antich.

Protagonista horien bitartez ezagutu ahal izango ditugu iraultza, gerratea, erbesteak, erresistentzia, espetxea eta sindikalismoa, besteak beste.

Film horrekin batera, liburu bat, disko bat, antzezlana eta erakusketa bat egin dute. Diskoaren eta filmaren musika Gabriel Sopenak, Loquillok eta Paco Ibañezek idatzi dute, besteak beste.

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE



Txitxinpe

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

## BOTEPRONTUEN

## Reinaldo Calero

## MAULANDA JATETXEA

XABIER URTZELAI

Reinaldok kamioie sukaldeko suengaittik kanbixau euen oin dala hiru urte, eta ez dou pentsetan barrero be kamioie hartzeko asmuekin ibilliko danik. Goixa basuen emun dau, eskopetie eskuen. Bere postuen gaur ez da uso askorik pasau, eta 11:00etarako lanera juen da.

## Kamioie itxi eta sukaldari; zer dala-eta?

Kamioien egun dana pasetan neuen etxetik kanpora, eta kantsaute neuen. Aukeriek urten euen, eta sukaldien hasi nitzen lanien.

## Eta nun ikesi zeuen sukaldien moldaketan?

Ba, egixe esatiarren, hamen lanien. Etxien be ibiltten nitzen, eta egixe da, baita be, hamen prepartetan doun platuek ez diela oso konplikauek. Etxeko platuek prepartetan dou, hori da-eta jentiek gure dauena.

## Zelan egitten dozue lan?

Aste barruen eguneko menuiek emuten dou, eta gaberako kartie. Eta aste bukaeretan be kartie eukitteen dou. Horrekin batera, jentiek arrautza frijittuek txorixuekin eta holakuek eskaketan dau asko.

## Merenderuetan moduen.

Bai, neurri haundi baten hola-xe funtzionetan dou. Inguruen badauz landutako platerrak emuten dauen beste leku batzuk, baiñe hamen ez dou holakorik egitten. Gauza barrixek ipinitte be, jentiek betikue eskaketan dau: txuletie, buztana, bakaillaue, entsaladak, kalluek...

## Kurba ederrien dauketzue jatetxie.

Hori egixe da. Eta oin nahiko ondo, juen zan urtien asfalto barrixe ipini euen, eta oinguek ondo hobaketan dau. Asfalto zaharra euenien, bustitte egonez gero, kontuz ibilttekue zan.

## Anekdotak bat baiño gehixau eukiko dozue.

Baserrixen hormien kontra bat baiño gehixau juen da. Eskerrak horma zabala dan. Eta kontue da holako bat pasetan danien Udale-



X.U.

*"Plater barrixek prepartetan badou be, jentiek betiko gauzak eskaketan dau: txuletie, bakaillaue..."*

kuek Diputaziñuen gauzie dala esaten dauela, eurek ertzaiñena dala... Pelotie pasetan dutzo batak bestie, eta hamen iñok ez daki ezer.

## Ze ekarriko dau autobide barrixek?

Neuk be ez dakit esaten. Pentsetan dot hasieran igarriko doule beherakadie. Bestiek beste, aste barruen autobideko langilliek etorten die-eta bazkaitten. Baiñe inguruko jentie bardin-bardin etorriko da Maulandara. Zirkulaziñuendako lasaittasun apur bat be ekarriko dau, baiñe esango neuke ingurukuok Gatzagako bide zaharra ibiltten jarraituko doule.

## Ze da zuon laneko gauza txarrena?

*"Asfalto zaharra bustitte euenien kontuz ibilttekue zan; zenbat juen dien hormien kontra..."*

Egunien ziher ordu asko ofreziduten dutzeule. Libretan garenien be, okela edo letxuga bille juen biher izeten doule.

## Eta onena?

Etxien egitten doule lan. Kamioiekin kanpuen ibiltten nitzen, eta etxien egotie asko eskerketan dot.

## Lana alde batera itxitte: ze falta jako Debagoienai?

Neure ustez, ezer be ez; danetik daukou hamen.

## Eta ze dauko ona?

Gauza asko.

## Ze falta jatzu zeuri?

Falta, falta... Egoistak gare izeitez, baiñe zer daukou pentsetan hasitte, gauza asko sobran.

## NIREBIDAIAHURA/ Iban Gonzalez

Ekuadorrera / 2005eko udan.

**E**kuadorrera iritsi eta egun gutxira Iban eta Ana Cayambe sumendira joan ziren, Anaren gura-soekin batera: "Anaren aitak 4x4 automobilari kaxa erreduzitzailea kendu zion, eta han geratu ginen, malda batean, ez aurrera eta ez atzera". Hori bai, hara igotzen izugarri gozatu genuen, sekulako pistak zeuden-eta". Hondartzan ere ibili ziren: "Eta zelako hondartzak. Baleen hezurak zeuden hondarreen, eta baita titanioa ere. Bakarrik geunden hango hondartzetan, baina euliekin argi ibili beharra zegoen. Pedernalesen, adibidez, izugarria zen; ohartu nintzenerako gorputza zitzadaz beteta neukan".

Ciudad Mitad del Mundo ekuadorrean dago, eta gauza bitxia gertatzen da han: "Monumentu moduko bat dago herri horretan, Ipar eta Hego hemisferioak banatzen dituena. Alde batean jarrita, besoak altxatu eta emaztea neure besoak jaitzen ahalegindu zen, baina ez zuen lortu. Beste aldera pasa ginen, eta ariketa bera egin genuen. Nik barre egiten nuen, baina besoak bakarrik ez, makurtu ere egin nintzen emazteak egindako presioagatik.

Horrekin batera, ura alde batera edo bestera nola erortzen den ere erakutsi ziguten; harrigarria da grabitateak eta beste hainbat faktorek duten eragina".

Cochasquiko piramideetan ere izan ziren: "Ezin dut pentsatu ere egin orain dela horrenbeste urte zelan egin zituzten piramide horiek. Folio bat ere ez da sartzen hango harri artean". Eta Amazonia aldera ere egin zuten, Ekuadorko ekialdean: "Emazteak lehengusuak ditu han, eta bisitan joan ginen. Lau egun egin genituen han, eta bitxia da han duten klima hezea; horri esker dute oiha ederra. Goizetan eguraldi ona egiten du beti; eguerdi partean iluntzen hasten da, eta arratsaldero sekulakoa botatzen du". Lau egun horietan gauza mordoa egin zituzten, besteak beste, 4x4 autoen rallyarekin gozatu. Hori, baina, datorren astean.



*"Ciudad Mitad del Mundon ikusi genuen grabitateak duen eragina"*

XABIER URTZELAI



Iban, Amazonian dauden milaka tximinoetako batekin.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58


ARRASATE



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35





## ZIKLOTURISTEK AMAITU DUTE AURTENGO DENBORALDIA


**A**urten ere makina bat kilometro egin eta gero, Debagoiena Zikloturista Taldekoek dagoeneko amaitu dute denboraldia. Negua gainean daukagu, eta bizikletan ibiltzeko egun aproposenak dagoeneko atzean utzi baditugu ere, oraindik ere errepidean ibiliko dira asko eta asko. Argazkian dauden zikloturistek hasi bezala amaitu dute urtea, Dorletako Amari bisita eginda. Egia esateko, denboraldi hasieran estuago zituzten kulot eta maillotak. Negua indarrak errekuperatzeko aprobeztatuko dute, datorren denboraldia ere konturatu orduko etorriko da-eta.



## 1943AN JAIO ZIREN EMAKUME HORIEK FORMAL IBILI ZIREN MARITXU KAJOI EGUNEAN

**I**zan ere, emakume koadrila horrek urteak daramatza Maritxu Kajoi osteko egunean, zapatuan, elkartu eta bazkaria egiten. Bistan dago zapatuan umore ederrean ibiltzeko egubakoitzean zaindu egin zirela, bestela ez dago horrelakorik egiterik. Esandako moduan, 1943an jaioak dira, eta San Juan Batailatailea Parrokian meza entzun eta gero Zigorrola aldera

egin zuten paseoa, Hostalean zeukaten-eta bazkaria. Seguru nago lasai-lasai bazkaldu zutela; aurreko gaueko afaria baino lasaiagoa izango zen, behintzat. Aurtengo bazkarian joan den urtekoan baino askoz ere lagun gehiago elkartu dira; erretratuan hemeretzi lagun ikusten ditugu. Eta esan beharra dago datorren urterako 1943an jaioak emakume guztiak daudela gonbidatuta.



## MONDRAKO OTARREKO ZOZKETA GORKA AURREKOETXEA ETA SEME MARTINENDAKO

**M**artin gaztetxoaren aurpegia ikusita ez dakigu otarra irabazi duen konturatu den edo ez. Aitak irribarre galanta dauka, ederto afalduko duela dabil-eta pentsatzen. Zozketa hori Mondrak Atxabalpen jokatu zuen azkeneko norgehiagokakoa da, Touringen kontra jokatu zutena. Orduan Mondrak irabazi egin zuen, eta hiru puntuekin batera eraman zuen Gorka

Aurrekoetxeak saria etxera. Ez dakiguna da joan den astean Aretxabaletaren kontrako derbian zozketa irabazi zuena Arrasatekoa edo Aretxabaletakoa zen, baina irabazi zuenak ere eskuak bete-beteta eraman zituen. Ahaztu barik, *Asteleheneko Goienkaria*-n ikusi dugu Mondrako presidentea, klubak bazkide gehiago behar dituela esaten. Animatu, merezi du-eta.

# Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)-eko blog komertzialak



- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzailetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:  
[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) · [azabarte@goiena.com](mailto:azabarte@goiena.com) · 943 76 92 70



[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/4quattro4	/joseba	/gutzieder	/ohiak	/pando
/arregi	/BZ-sistemas	/korozabaleta	/okipark	/udalatx
/atai	/gallastegi	/multipticas	/vitoria	/udalaitz
/azkarate	/garaia			

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)





Argazkian, Arrasateko Gazteen Kontseiluko hainbat kide ekimenaren horma-irudiekin.

GAZTE ASTEBURUAK/ Bihar, zapatua, hasi eta abenduaren 17ra arte bitartean

# Euren burua gaztetzat dutenendako ekimen ugari

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Gazteen Kontseiluak Gazte Asteburuak antolatu ditu. Bihar, zapatua, hasi eta abenduaren 12ra arte, mendi ibilaldia, bertsolariak, gaztaina jana, pintxo lehiaketa, kale animazioa, film laburrak, kontzertuak eta umeendako ekintzak egingo dituzte.

Arrasateko Gazteen Kontseilua herriko hainbat elkarte eta taldek osatzen dute. Joan den urtean, Gazte Astea antolatuta zuten, eta aurten, ekintzak hainbat asteburutan egingo dituzte, Gazte Asteburuak izenpean.

Antolatzaileek esan digute mota askotako ekintzak egin dituztela eta ez dagoela adin mugarik: "euren burua gaztetzat dituzten lagun guztiek esku har dezakete antolatutako egitarauan. Horretarako egina dago".

**UDALATXETIK BUELTRAN, BERTSOLARIAK**  
Bihar, zapatua, hasiko da Gazte Asteburuak ekimeneko egitarau

zabala. Hain zuzen ere, Udala txera mendi ibilaldia egingo dute. 10:30ean egin dute hitzordua Arbolapetan. Nork bere jana eraman beharko du, eta bazkalordurako bueltan egongo dira.

Goizeko ibilalditik indarberritu ostean, 19:00etan Herriko Plazan egingo dute hitzordua. Han Arrasateko Trikitixa eskolako ikasleek esku hartuko dute eta gaztainak erreko dituzte. Musika eta jana guztion gustura, hain zuzen ere.

### HILAREN 19AN, UMEEN EGUNA

Datorren zapaturako, hilaren 19rako, Txatxilipurdirekin elkarlanean Umeen Eguna antolatu

*Bihar, zapatua, mendi ibilaldia, bertsolariak, trikitilariak eta gaztaina erreak*

dute. 11:30etik 13:30era puzgariak eta tailerrak jarriko dituzte Uarkapen. Eta 18:00etan, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoez ikuskizuna egingo dute pilotalekuan. Sarrera sinbolikoa jarriko dute: 1,5 euro.

### PINTXO LEHIAKETA ETA KALE ANIMAZIOA

Hilaren 26an, pintxo lehiaketa egingo dute Udaletxeko arkupeetan. 16:30ean izango da, eta interesatuek izena eman beharko dute AEDn hilaren 23a baino lehen (943 71 21 17 telefono zenbakira deituta).

Egun berean, kale animaziozko bizpahiru talde ekarriko dituzte herrira eta 18:30etik gaue-ra arte egongo dira herriko bazterrak giroten.

Abenduan ere egongo da zer egin eta ikusi. Hilaren leian, Sexmetraia lehiaketako film laburrak emango dituzte gaztetzan, 19:00etan. Udaleko Sexologia Zerbitzuarekin elkarlanean egin dute. Eta hilaren 17an, herriko taldeek kontzertua egingo dute gaztetzan.

## Jukebox eta Potemkin musika taldeak, 3.60 aretoan

I.B.

**Bihar, zapatua, ibarreko rock-and-roll talde indartsuenetako bik joko dute 3.60 aretoan. Biek hala biek kantu berriak aurkeztuko dituzte.**

Ez dago urrun joan beharrik rock-and-roll talde bizi-biziak ikusi eta entzuteko. Hain zuzen ere, ibarrean badira halako taldeak; adibidez, bihar kontzertuan ikusiko direnak: Potemkin eta Jukebox, hain zuzen ere.

Oñatiko Potemkin taldea poliki-poliki ezagun egiten hasi da eta Danbaca Debagoieneko I. Musika Lehiaketan finalistak izateak izan du horretan zeresan handia. Latzen taldeko bi lagunek eta beste bi oñatiarrek osatzen dute talde hori. Iraganean egiten zuten metal musika albo batera utzi dute, eta gaur egun punk-rocka eta rock-and-roll indartsua egiten dute. Orain dela gutxi, estreina-

ko diskoa grabatu dute Bonberean, Karlos Osinaga teknikariarekin, eta badirudi laster kaleratzeko asmoa dutela. Eta, hain zuzen, kantu horiek joko dituzte 3.60 aretoan.

### ARRASATEKO 'ZUZENKO PIZTIAK'

Oñatiarrekin batera, Jukebox taldea arituko da. Eskarmentu handiko lau arrasatearrek eta sorailuzetar batek osatzen dute taldea. Besteak beste, honako taldeetan esku hartu dute orain arte: Kañeria 13, Arkada, Die Testers... Hasieran hainbat talderen bertsiok jotzen hasi ziren, eta *zuzeneko piztiak* direla erakutsi zuten taula gainean. Horren ostean, kantu propioak idatzi zituzten eta emanaldiak egiten jarraitu dute. Iaz Donostiako GP diskoez beste kaleratu zuen arrasatearren estreinako lana eta aspaldian hainbat hiriburutan egin dituzte emanaldiak, atzerriko eta hemengo taldeekin.



### Euskal jolasak berreskuratzeko topaketa

Martitzenean euskal jolasen topaketa egin zuten Mesedeetako Ama eta Arizmendiko DBHko 3. mailako ikasleek. 09:30etik eguerdira bitartean jo eta su ibili ziren ikasleak Laubide plazan. Hainbat ariketa egin zituzten: artoa aletu, hankapoteak, boloak, soka tira, lokotzak jaso... Topaketen helburua zen jolasak berreskuratu eta erakustea. /ARGAZKIA: MIKEL LUPIAÑEZ

# smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

### Eskuratzeko modua:

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
LOGOAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
ABESTIAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA

Deiaren prezioa: 0,90 +BEZa/ Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)

## 7505

zenbakira



## Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

### OHARRAK

**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarrtasunaren eskaintza dagoen produktuetan, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarr](http://www.smsoinu.com/bateragarr)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatzeak, jarraitze zure hormitzaileekin harremanetan. Alde onetara duan eta KU jantziak bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistemari alta ematea duan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora / Vodafone: deitu 123-ra / Movistar: deitu 608-ra

**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu: 902 01 21 48 telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin dituztegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

### ABESTIAK POLIFOIKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

**Himnoak**  
Eibar | EIBAR  
Athletic Club | BILBAO  
Osasuna | OSASUNA  
Real | REAL  
**Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA  
Aizkolan (Kortatu) | AIZKO  
Amore amore (Kortatu) | AMORE  
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU  
Dub manifest (Fermín Muguruza) | DUB  
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO  
ER Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR  
Eus dicamiera, nosotras amem (La Palla) | ELLOS  
Enamorado de la muerte (epi) | ENAMOR  
Etorritzuna (Esbaki) | ETORKI  
Ezer ez da betiko (Ken) | EZER  
Gora Herria (Migu Goniak) | GORA

Hator Bel-Air (Bide Ertean) | BELAIR  
Haizaa (Ken) | HAIZEA  
Hegal egiten (Mendi) | HEGAL  
Ikusi (Bide Ertean) | IKUSI  
Iargia (Ken) | IARGIA  
Inperuen ate joko (Gabi) | INPER  
Jokin Urairi Hitzak (Bide Ertean) | JOKIN  
Kaixo (Ken) | KAIXO  
Lau Teiletu (Itzi) | ITOIZLAU  
Laztana (Joni) | LAZTA  
Lotuta egon arren (Kortatu) | LOTUTA  
Loreboa (Esbaki) | LORE  
Marea Gora (Ken) | MAREA  
Musturrek sartunde (Gabi) | MUSTURREK  
Nigaragu (Kortatu) | NIGA  
No time for love (Hertzainak) | NOTIME  
Salve (La Palla) | SALVE  
Sami Sarti (Kortatu) | SARRI

Sorginen leizean (Esbaki) | SORGIN  
Txatxo (Zaruma) | TXATXO1  
Txus (La Palla) | TXUS  
**Trikitixa**  
Bexamele ta pastela (Maita ta biñi) | BEXAMELE  
Bokespok (Kortatu) | BOKESPOK  
Hik lan eta nik (ai) (Ippai) | HIK  
Itsas ontzi batan (Kortatu) | ITSAS  
Kupela (Esbaki eta Larrañaga) | KUPELA  
Mila galdera (Mendi) | MILAI  
Nirekin (Gaztegi) | GOZATEGI  
Ny Hirahira (Kortatu) | HIRA  
Txanpon batan truke (Mendi) | TXANPON  
**Folk**  
Arratsalde honetan (Soren Baki) | SOROTAN  
Bai euskarari (Portuak) | BAI  
Bakezaleak (Añe Duhalde) | BAKE  
Bizkaia Maita (Berito Larrañaga) | BIZKAIA

Eperrak (Añe Duhalde) | EPERRAK  
Euskal Herria Euskaraz (Kortatu) | EUSKAL  
Euskaldun berriaren balada (Kortatu) | EUSKALDUN  
Ez da posible (Paper Ordokai) | POSIBLE  
Furra Furra (Kortatu) | FURRA  
Galiziar noa (Kortatu) | GALIZIARA  
Gernikako Arbola (Gortatu) | GERNIKA1  
Haika Muti (Mikel Laboa) | HAIKA  
Izarren hautsa (Kortatu) | IZARREN  
Lepon hartu ta (Portuak) | LEPOAN  
Marinelaren zai (Soren Baki) | MARINE  
Nere herriko neska bat (Kortatu) | NERE  
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarai) | NON  
Oñ Ame Euskal Herria (Kortatu) | OIAMA  
Tira (Kortatu) | TIRA  
Txatxamatxalatu (Mikel Urdangarai) | TXATXA  
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA  
Zaindu mailte zuzen hori (Paper Ordokai) | ZAINDU

**Herrikoia**  
Bagare | BAGARE  
Desde Santurce a Bilbao | DESDE  
Ikusi Mendizaleak | MENDI  
Pintxo-pintxo | PINTXO  
San Simon eta San Judas | SAN  
**Jaietakoak**  
Artillero dale fuego | ARTILLERO  
Manjaja (Kortatu) | JAIA  
San Fermín | FERMIN  
San Martzialak alardea | SAN MARTZIAL

**SOINU ERREALAK (2 sms)**  
Soinu izena | KODEA  
Irrintzia | IRRINTZI  
Txalaparta | TXALA

### JOKOAK (4 sms)

**BOINK**  
**NEUTRON2**  
**RALLYDELUXE**  
**FUTVOLEY**  
**NOR**  
**SOBALL**

**Eskuratzeko modua:**  
JOKUA: SOINUJ+hutsunea+KODEA  
**7505** zenbakira  
Prezioa: 3,6 +BEZa

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. .... 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Atzeko kale 6 behea ..... 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otalora lizentziaduna 18 ..... 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... 943 77 03 96

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. .... 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. .... 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ..... 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma ..... 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H ..... 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... 943 79 44 22

## EZETZASMATU



MIKEL LUPIAÑEZ

Non dago argazkian ikusten duzuen armarr hori?  
Arrastoa: Arrasateko oso leku ezagunean dago.

Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESS-ERA!

Crestarosa ardo gorria

# 2,99€

497 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**ASUN AGIRIANO** rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Asun!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Ferixalekuan.**

## ARRASATEKO HISTORIA

## Arantzazuko basilika: Pablo Leteren proiektua

'LA NUEVA BASILICA...' / U.M.

**P**ablo Lete (1949-1952an frantziskotarren ministro probintziala) izan zen Arantzazuko basilika berriaren eragile nagusia. Hark sortu zuen basilika berria eraikitzeko Obra batzordea. Eta hark antolatu zuen, baita ere, aurreproiektuen lehiaketa. Oinarrien arabera, 1950eko maiatzean bukatu zen proposamenak aurkezteko epea. 14 aurreproiektu aurkeztu zituzten Euskal Herriko eta Estatuako arkitektoen zenbait kolegiok. Haien artean, epaimahaiak aho batez onartu zuen Javier Saenz de Oitza eta Luis Laorga arkitektoen proiektua. Estilo modernoa zuen proiektu hark, Pablo Letek aurreikusitako ez zuena. Hala epaimahaiak zera argudiatu zuen: "Bere pentsamendua zuzen interpretatu badugu, "euskar barroko" estiloko proiekturen bat balego, oinarritzko baldintzak beteko zukeena, akaso hura onartuko genuke. Baina euskal barroko estiloan aurkeztu zituzten bi proiektuek ez zituzten oinarritzko baldintzak betetzen".



Basilikaren lehen harria ipini zutenekoa; Cayetano Cicognani kardinala izan zen buru, Pablo Leterekin batera. Argazkian daude biak.

Proiektua zein izango zen erabakitakoan, Pablo Letek lehenbailehen nahi zituen lanak hasi; hala, proposatu eta azkenean lortu egin zuen lehen harria urte hartako Arantzazuko Amaren egunean ipintzea, irailaren 9an.

Egun handia izan zen hura.

*Basilikaren lehen harria 1950eko Arantzazuko Amaren egunean ipini zuten*

Donostiako elizbarrutiko lehen gotzain Jaume Font i Andreu izan zen buru mezan. Hari laguntzen izan ziren Aita Santuaren nuntzio Monsinore Cayetano Cicognani eta Santanderko gotzain Monsinore Egino. Horrez gainera, bestelakoan artean izan ziren Gipuz-

koako Diputazio osoa eta gobernadore zibil eta Militarrek. Meza esan zuen Eujenio Agirretzek, euskaraz eta espainolez.

**EGUN HARTAKO EGUNKARIAK GORDETA**  
"Bedeinkapenak esan eta aktak sinatu ostean, harrian utzi zuten ohiko botila. Haren barruan zeuden zeremoniaren akta eta ekitaldiaren handitasunarekin lotutako zenbait objektu: zenbait txanpon, eguneko egunkariak, Santutegiko erlijioso eta ikasle guztien zerrenda eta Bederatziurreneko egitaraua". Iñaki Eizmendi *Basarri*-k ere parte hartu zuen ekitaldian.

**HERRITARRAK OHITU BEHAR**


Handik aurrera, lanak egiten hasi ziren. Eta bestaldetik, Arantzazuko basilikaren bultzatzaileak hasi ziren lan berezi bat egiten: herritarrei ulertaraztea basilika berriaren proiektua. Izan ere, argi zuten proiektu apurtzailea zela hura, ohiko eskema arkitektonikoen-gandik dezente aldentzen zena. Bide asko erabili zituzten herritarrengana heltzeko: prentsa, *Arantzazu* aldizkaria, Salbatore Mitxelena alde idatzi zuen, *Basarri* eta *Gesaltzako Aitona* (Graziano Anduaga) bertsolariak ere ibili ziren... hala ere jende asko izan zuten kontra.

# UGARTE

## AROZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04

2000 etxe jabeek errentan eman dute euren etxebizitza hutsa Eusko Jaurlaritzako BIZIGUNE programaren bitartez.

## Eman errentan zure etxea beldurrik gabe !






Eusko Jaurlaritzako Visesa arduratzen da gestio osoaz: zuri ordaindu, 5 urte barru etxea hasierako egoeran bueltatu, bizi-lagunak aurkitu... eta ondo ordainduta. Gainera, obrak egiteko 18000 euro arteko dirulaguntza interes gabeko mailegu gisa.

Jo zure udaletxera informazio eske!

**SURADESA**  
Rehabilitación urbana  
DEBAGOENA Hirri. Birgaitzea  
suradesalask@telefonica.net  
Tel.: 943790645  
www.debagoiena.net/suradesa

**visesa**  
VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.  
[ BIZIGUNE ]

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
ETxebizitza eta Gizarte gaiak saila  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES



# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11

401. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: S5378/94

## Bizigune programa sinatu dute astean hutsik dauden etxebizitzak bideratzeko

MIRARI ALTUBE

Eguaztenean, azaroak 9, herrian izan zen Javier Madrazo sailburua Bizigune programa hitzarmena sinatzeko Udalarekin. Hutsik dauden etxebizitzak aprobetxatzea du helburu Bizigunek, eta etxebizitza beharra duten herritarrei prezio onean eskaintzea.

Eusko Jaurlaritzak bideratzen du hutsik dauden etxebizitzak errentan emateko Bizigune programa eta Javier Madrazo sailburua izan zen sinadura ekitaldian. Hitzarmena Udalarekin egin zuen eta Arritxu Oliden alkateak sinatu zuen Udalaren izenean. Suradesako gerente den Luis Laskurainek ere ezarri zuen sinadura Suradesaren bitartez egingo duelako lan Udalak.

### JABE ETA MAIZTERREN ARTEAN

Hutsik dauden etxebizitzak erabili gura ditu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etxebizitza eskaera arintzeko. Hala, hutsik dauden etxebizitzak errentan ematen dizkiete etxebizitza beharrean daudenei. Jabeek 560 euro inguru jasotzen ditu alokairuaren truke, eta errentan hartu dutenek 235 euro batzaz beste. Bien arteko aldea, oster, Eusko Jaurlaritzak ordaintzen dio jabeari. "Eusko Jaurlaritza tartean dagoelako funtzionatzen du hain ondo programak" esan zuen Madrazok. Gainera, etxebizitzak zaharberitu gura dituenarendako laguntzak eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzak: 18.000 euro-

ko mailegua interes barik itzuli beharrekoa.

### SURADESAREN BITARTEZ

Dagoeneko 2.712 kontratu bideratu ditu Eusko Jaurlaritzak Bizigune programaren bitartez. Eskoriatza, Arrasate eta Bergara sartuta daude Bizigunen eta orain Aretxabaleta sartuko da. Debagoienean, Suradesa erakundeak eroango du aurrera programa Udalek hala eskatuta, eta bera arduratuko da programaren berri emateaz. Aretxabaletako udaltxean eguenetan egoten da Suradesako teknikaria 12:00etatik 13:00etara.

### UDALARI JARRITAKO BALDINTZAK

Bizigune programa onartzen duten Udalei hainbat baldintza ezartzen die Jaurlaritzak: hutsik dauden etxebizitzaren errolda egitea; programa bideratzeko teknikariak jartzea; programaren berri ematea herrian eta Udal zergak arintzea. Aretxabaletako Udalak guztiak betetzen ditu; izan ere, Suradesak egingo ditu berri emate lanak, eta bestalde, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan %50eko hobaria izango dute.

*Etxebizitzak zaharberitu gura duenari 18.000 euroko mailegua ematen diote*



Jaime Mujika zinegotzia, Javier Madrazo sailburua, Arritxu Oliden alkatea eta Luis Laskurain Suradesako gerentea ekitaldian.

## Aretxabaletan 60 etxebizitza inguru

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera gaur egun Aretxabaletan 179 etxebizitza daude hutsik. Udalak egindako azterketaren arabera, oster, 60 inguru dira hutsik daudenak. Erroldako datuak eta ur kontsumoaren datuak hartu ditu kontuan Udalak azterketa hori egiteko orduan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebide zerbitzuan izena emanda daudenetatik 333 lagunek errentan hartu gura dute etxebizitza. Horietatik 97 Aretxabaletan daude erroldatuta. Poliki-poliki hasi dira herritarrek hutsik dituzten

etxebizitzak errentan ematen eta dagoeneko horietako 7 daude Bizigune programan sartuta.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Bizigune programa Suradesa erakundeak bideratuko du gure ibarrean. Suradesak, besteak beste, etxebizitzak zaharberitzeko dirulaguntzak bideratzen ditu eta orain errentan eman eta hartu gura diren etxebizitzak ere merkaturatzen laguntzen du. Aretxabaletako udaltxean eguenetan egongo da horretaz arduratuko den teknikaria, 12:00etatik 13:00etara.

**Parket flotatzailea**

**AZKARATE AROZTEGIA**  
Telleria 19, B-0-2 B-0-3 BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 - 610 884 020

**Zoru aukera zabala, tarimak, parket bernizatuak eta estratifikatuak**

**LURRINDEGIA OPARI DENDA**  
Mitarte 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA

**PAGALDAI**  
*Opari denda Burrindegia*  
Durana 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**J.J. IRURE**  
ITURGIKATZA  
URA GASA KALEFAKZIOA  
MITARTE, 15 ARETXABALETA  
943 793 187

**FARMAZIENTXANDA**

ZAPATUA, 12  
FRAL.E. Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 13  
FRAL.E. Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

**TELEFONOAK**

- OROKORRAK**
- Almen ..... 943 71 49 07
  - ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21
  - Fara ..... 943 77 18 54
  - Basob ..... 943 77 09 81
  - Euskaltegia ..... 943 79 21 68
  - Giarte laguntzailea ..... 943 71 18 62
  - Industrialea ..... 943 79 62 80
  - Instituta ..... 943 79 79 00
  - Kinl etxea ..... 943 71 26 28
  - Kultura etxea ..... 943 71 10 27
  - Gaiteia saila ..... 943 71 10 27
  - Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49
  - Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40
  - Q/Gunea ..... 934 79 94 44
  - Liburategia ..... 943 71 18 62
  - Loramendi EE ..... 943 77 09 70
  - Ludoteka ..... 943 79 05 81
  - Markomunitatea ..... 943 79 30 90
  - Mamukiko ME ..... 943 79 93 74
  - Musika Eskola ..... 943 79 36 50
  - Osasun etxea ..... 943 71 19 59
  - Okara ..... 943 71 24 06
  - Parrokia (Dulegoa) ..... 943 79 18 42
  - Pauska Haur Eskola ..... 943 77 03 77
  - Postetxea ..... 943 79 28 31
  - Sasabeazpi Ikastola ..... 943 71 21 18
  - Taxi geltokia ..... 943 77 12 64
  - Udal Bulegoa ..... 943 71 18 62
  - Udalzaingoa ..... 943 71 18 63
  - Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

- SOS Delak ..... 112
- Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00
- Ertzaintza ..... 943 79 71 99
- Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76
- Larrialdiak ..... 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA**  
Domeketan: 12:30.

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELAO**  
Domeketan: 11:30.

# Xabier Ormazabalen oroimenezko muntaia emango dute eguenean

M.A.

Loramendi Euskara Elkarreak antolatuta **Elurretako lehoi-barraren bila** muntaia emango dute eguenean, azaroak 17, 19:00etan. Iazko urrian hil zen Xabier Ormazabal mendizale urretxuarraren ohar eta argazkietan oinarrituta dago. Andoni anaiak aurkeztuko du.

Iazko irailean burutu zuen **Elurretako lehoi-barra** proiektua 23 urte zituen Xabier Ormazabalek. Sobiet Batasuna izandako bost mendi igotzeagatik ematen dute elurretako lehoi-barra izendapena: Ismail Somoni, Khan Tengri, Pobeda Peak, Lenin tontorra, eta Korgenevskaya. Zazpi mila metroko mendiak dira guztiak baina asko Himalaiakoak bezain arrisurtsuak. Xabier izan zen Espainiako Estatuko lehena elurretako lehoi-barra izendapena lortzen.

Iazko urriaren 19an hil zen Xabier Cho Oyu mendi tontorretik behera zetorrela. Haren proiektuekin aurrera jarraitzea erabaki zuten etxeok eta **Elurretan lehoi-barren bila** emanaldia gertatu dute **Hire Himalaia** egin zuen muntatzailearekin. Andoni anaia-



Xabierren argazki eta oharretan oinarritutako muntaia aurkeztuko du Andoni anaiak.

ren esanetan ipuin eran antolatu dute: "Bere oharretan oinarrituta dago, baina elkarrizketa asko tartekatuta dugu: Alberto Iñurra-tegiri, Edurne Pasabani... baita etxekoei eta lagunei egindakoak

ere. Gainera, bere ahotsa ere berreskuratu eta sartu dugu muntaiari" dio Andonik. Hala, oso lan berezia eta hunkigarria aurkeztuko du Aretxabaletako Ekin fisioterapia zentroan lan egiten duen



## Eguaztenean, azaroak 9, bota zuten kultur etxea

Joan zen astean hasi zituzten Santa Kurtz kaleko eraikina botatzeko lanak: aparkalekuek autoak kendu, inguruan hesia jarri eta barruko trasteak atera. Poliki-poliki apurtu dituzte barrualdeko gelak eta eguaztenean kanpoaldea bota zuten. Halaxe esan diegu agur kultur etxe eta zine areto zaharrari. Eraikin berriak ez du lehengoaren inolako antzik izango: bost solairu izango ditu, harrizkoak izango da eta metalzko estaldurarekin. / M.A.

**LABUR**

## Osasun mentalaren gaineko berbaldia azaroaren 17an

Osasun mentalaren gaineko berbaldia antolatu du Udaleko Ongizate Sailak. Azaroaren 17an, eguena, izango da 17:00etan, Iralabarri plazan dagoen kultur etxean. Aita Menni ospitaleko Eva Gonzalez psikologoa etorriko da berbaldia ematera, eta batez ere gaixo mentalak dituzten familiendako dago antolatuta: gaixoarekin zela bizi, zein zainketa behar dituzten jakin, zela jokatu krisi momentuetan... Guztia era positiboan ikusarazten saiatuko da psikologoa.

## Nagusien dantza ikastarorako jendea behar dute

Egubakoitzetan euskal dantzak ikasteko elkartzen den nagusien taldeak jendea behar du. 15:45etik 16:45era bitartean ematen dizkie eskolak dantzako irakaslea den Aitorrek, eta musika eskolan elkartzen dira. Egubakoitzetako taldeak jendea behar du lehenbaitalen taldea osatu eta dantzak behar bezala ikasteko. Hortaz, euskal dantzak ikasi gura dituenak paregabe aukera dauka.

## Mekanizazio eta geriatría ikastaroak institutuan

Aretxabaleta institutuak mekanizazio eta geriatría laguntzaile ikastaroak antolatu ditu urtero moduan. Tornua eta fresatzeko makina zela erabili erakutsiko dizkiete mekanizazio ikastaroko ikasleei azaroaren 21ean hasi eta ekainaren 16a bitartean, 16:00etatik 21:00etara.

Geriatría laguntzaile ikastaroan bestalde, edadetuak zela zaindu azalduko diete. Azaroaren 28an hasi eta maiatzaren 8an bukatuko dituzte eskolak, eta 16:00etatik 20:00etara emango dituzte.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAK  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

**Mortin**  
erloju-denda

Bere bezeroen zerbizura

Mitarte 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETAK

Jou Diaz  
starakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETAK

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETAK  
Tel.: 943 79 01 28

# Urkiren aurka jokatu bukatuko dute lehen fasea infantil txikiek

M.A.

Bihar, zapatua, jokatu du infantil txikien taldeak lehenengo faseko azken partidua: Urki izango du aurrez aurre 15:30etik aurrera Ibarren. Ondo ibili dira Aitor Irure eta Santi Moralesen mutilak eta bigarren fasean izango ditugu, hau da, Liga Txapelketan.

Infantil txikiek bi multzotan jokatu dute lehenengo fasea: hamar talde batean eta bederatzirekin. Aste bukaera honetan bukatuko dute lehenengo fasea eta hurrengo jokatzeko beste bi multzo egingo dituzte. Multzo bakoi-tzeko bost talde onenek Liga Txapelketa jokatu dute eta gainerakoek Gipuzkoako Kopa. Aretxabaletarrak Liga Txapelketan izango dira.

## GIPUZKOAKO TALDE ONENAK

Sailkapeneko hirugarren postuan daude Aretxabaletako Infantil Txikiak, Eibar taldearekin berdinduta. 15 puntu dituzte biek eta euren gainetik Real Sociedad dago 21 punturekin. Hortaz, arazo barik sailkatuko dira Liga Txapelketa jokatzeko. Aitor Irure eta Santi Moralesen ardurapean jokatzen dute mutilek eta Aitorren esanetan aurtengo helburua beteta dago: "Bigarren fasean Gipuzkoako talderik indartsuenak izango ditugu aurrez aurre: Real, Antiguoko, Real Union, Eibar, Lengokoak... baina gure helburua bete dugu, hain zuzen talde horien aurka jokatzeko. Datorren denboraldiari begira jokalariek gertatzen gabiltza Ohorezko Infantilen mailan jokatu dute-lako" dio Aitorrek.

Mutilak oso motibatuta dabil-tza eta hasieran zelai osora ohi-tzea kosta egin bazitzaie ere ba-doa neurria hartzen. Bi partidu bakarrik galdu dituzte eta biak ere nahiko itxuroso jokatu. Hala ere, Aitorrek badaki taldeak atal ugari dituela hobetzeko: "Jokalariek koskortzen doazen heinean, fisikoki zein psikologikoki, geroz eta gauza gehiago egiteko gai izango dira, eta horiek aprobetxatzen jakin behar dugu". Taldean, gainera, ikaragarriko



Gipuzkoako talde onenak aurka jokatu dute Infantil Txikien bigarren fasean.

*"Bete dugu gure helburua: Gipuzkoako talde onenen aurka jokatzeko"*

giroa daukate eta joan zen aste-buruan Martutenen partidua jokatu ostean Lasturren bazkaldu zuten entrenatzaile, jokalariek eta gurasoek.

## ZELAIAREN EGOERA TXARRA

Aitorrek kexa ere badu. Izan ere lesioekin dabilta jokalariek eta ia zati datorren arazoa da: "Jokalariek dezente arazoekin dabilta, batez ere gainkargak dituzte. Zelaiaren egoera zerikusirik handia dauka -belarra gastatuta, zuloak-, hortaz, belar berria behar du. Deigarria da, gainera, orain urte bi hareazko zelaiak ziztuzten hainbat taldek izugarriko zelai ederrak izatea orain Aldundiaren laguntzarekin. Noiz

*"Jokalariek dezente lesioekin dabilta eta zelaiaren egoera zerikusirik handia dauka"*

ko Aldundiaren dirulaguntzak Aretxabaletarako? Lehen ere Udalak ordaindu zuen orain daukagun zelaia". Seguru asko entrenatzaile bat baino gehiago egongo da ados Aitorrekin.

Bigarren fasean pentsatzen hasiko dira bai jokalariek, bai entrenatzaileak Urolaren aurkako partidua bukatu orduko. Bi bueltara jokatu dute, hau da, partidu bat kanpoan eta bestea etxean, eta ez orain arte moduan buelta bakarrera eta zozkieta bidez. Real eta Antiguoko pauso batzuk aurretik ikusten dituzte Aitorrek baina gainerako taldeen arteko norgehiagokak orekatuak izango direla dio. Azaroaren 19tik aurrera ikusi behar.

## LABUR

### Sailkapeneko laugarren postuan dago Fran Miguel Gipuzkoako Xake Txapelketan

Urriari hasi zuten Gipuzkoako Xake Txapelketa eta Fran Miguel aretxabaletarra dabil jokatu. Berdindu egin zuen joan zen aste bukaera Txus Agirretxe erreteriarrekin eta sailkapeneko laugarren postuan dago. Lehenengo postuan hiru lagun daude 3 puntu eta erdira eta Fran horiengandik puntu erdira dago.

Bihar, zapatua, Luis Olaizolaren aurka jokatu du Franek. Ez da partida samurra izango, baina lehenengo postuen inguruan egon gura badu irabazi beharra dauka Franek.

### Pilota partidu bi jokatu dituzte bihar, zapatua, 18:00etan, Iturrigorri frontoian

Gipuzkoako Pilota Txapelketa aurrera doa eta lehenengo fasea bukatzeko jardunaldi bi besterik ez dira falta. Hala-hola dabilta herriko pilotariak eta hemendik aurrera dituzten partiduak irabazi beharrean daude guztiak ere. Bihar, zapatua, partidu bi jokatu dituzte Iturrigorri frontoian: Uribarren eta Perez de Labeaga kadeteak Legazpiko bikotearen aurka eta Lasagabaster eta Alzola seniorrak Beasaingo Murumendi elkartearen bikotearen aurka. Errasti anaiak, oster, Añorgara joango dira jokatzera gaur.

### Arlutz tabernan jaso behar dira Realak ikustera joateko autobusaren txartelak

Donostiara Realak ikustera joateko autobusa Aretxabaletatik ateratzen da orain. Horretarako txartelak hartu behar dira Arlutz tabernan astelehenean egun gauera bitartean bi euroren truke. Azbe lantegi paretik ateratzen da autobusa partidua hasi baino ordu bi lehenago.

Bestalde Realaren lagun taldea sortzen dabilta herrian: Ametsueta talde. Norbaitek taldeko kide izan gura badu joan daiteke Arlutz edo Orly tabernara izena ematera.

### Liderraren aurka jokatu du bigarren erregionaleko taldeak domekan, 16:30ean

Antzuola izango du aurrez aurre UDako bigarren erregionaleko taldeak domekan, 16:30ean, Ibarra futbol zelain. Liderra da Antzuola 14 punturekin eta sailkapeneko hirugarren postuan dago UDako taldea 12 punturekin. Norghegiagokak gogorra izango da, hortaz, zaleen berotasuna eskertuko dute etxeko jokalariek.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

**UDA-Antzuola**  
Bigarren mailako erregionala.  
Domeka. 16:30  
**UDA/Arizm.-Urola**  
Lehen mailako kadeteak.  
Zapatua. 11:30 Ibarra.

### PILOTA

**Aretxab. - Legazpi**  
Hirugarren mailako kadeteak.  
**Aretxab. - Beasain**  
Bigarren mailako seniorrak.  
Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

**UDA 2 Mondra 2**  
Preferentea.  
**UDA 0 Ikasberri 0**  
Bigarren mailako erregionala.  
**Zumaia 6 UDA/Arizm. 1**  
Ohorezko gazteak.  
**UDA/Arizm. 5 Zestoa 2**  
Lehen mailako kadeteak.  
**UDA/Arizm. 2 Zumaia 1**  
Lehen mailako kadeteak.  
**Lagun Onak 0 UDA/Arizm. 2**  
Bigarren mailako kadeteak.

**Eibar 3 UDA/Arizm. 1**  
Ohorezko infantila.  
**Vasconia 2 UDA/Arizm. 4**  
Infantil txikiak.  
**Ilintxa 2 UDA/Arizm. 3**  
Emakumezkoen liga (seniorrak).  
**UDA/Arizm. 2 Bergara 5**  
Emakumezkoen liga (kadeteak).  
**UDA/Arizm. 6 Oñati 1**  
Emakumezkoen liga (infantila).  
**UDA 7 Power Rangers 2**  
Aretu futbola.

**ZARAIA**  
**taberna**  
Goizeko 06:00etik irekita  
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95


**Karlos**  
Harakina  
Santa Kurtz 5  
Tel.: 943 71 25 54  
20550 ARETXABALETA

**SANER**  
ITURGINTZA  
Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70

**Mobiliario**  
**ARENAZA**  
• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



**ARRATOIEK EI DABITZ ERREKAN, ETA BENENUE BOTA DAUE. ZE EGINGO ZEUKO ZUK?**



**ROSA FERNANDEZ**  
Langillie



**JOSE MAEZTU**  
Langillie




**MARIA LUISA ELORZA**  
Langillie



**JESUS DAROCA**  
Jubilaue



**PANTXIKA SASIAIN**  
Langillie



**ANDRES DURAN**  
Jubilaue

Astien etorri da semie arratoi bat ikusi dauela esanaz, baiñe ez zan errekan. Benenue bota biherrien errekie garbittu egin biherko leukie; bedarrak eta zikinkek kendu daixela.

Bai, entzun dot arratoiak dabitzela erreka inguruan, eta benenuek akabetan badi-ttu ondo dau botatie; oin, ahatak hiltten badie... Hori bai, garbittesun on baten biherrien dau errekie.

Penie da gero ahatak hilttie arratoiak akabau guran... Errekie da garbittu biherko leukiena, negargarri dau-eta; hasi Almenen eta herri-xe bukatu bittartien bazte-rrak garbittu daixela.

Benenue bota badaue Uda-la arduretu daille biher-rrazkiez dien neurriek hartziez. Dana dala, garbi-ttasun on bat biher dau errekiek, bertakuek ez dien traste ugeri dauko-eta.

Lehen ibilli ziela arratoiak badakit, baiñe oin ez dot entzun; dana dala, garbi egon-go da, ahatiek badabitz-eta. Benenue bota dauela? Zela baiñe? Baten batek ardu-retu biherko leukie errekiez.

Bai, entzun dot arratoiak dauzela, baiñe esaten daue uretakuek diela eta ez die-la kaltegarriek. Benenue bota eta ahatiek hilttie pe-nagarrixe da gero, ez neki-xen halakorik...

**TXALOAK ETATXISTUAK**



**TXISTUAK POZOIA IBAIAN** Pozoi poltsatxoak agertu ziren joan zen astean Deba ibaian. Kexa ziren azken asteotan hainbat herritar arratoiak zebiltzala ibai inguruan, eta antza arratoiak akabatzeko bota zuten pozoia. Arratoiak ez dakit, baina lasai-lasai bizi ziren ahate eta ur-oiloak hasi ziren hiltzen. Kontu handiagorekin hartu behar dira neurriak, eta ondorioetan pentsatuta. / M.A.

**ORAINDELA 3URTE ARETXABALETAN**

**Etxebizitzen gainean egin zuten berba Madrazok**

Babes ofizialeko etxebizitzak izan zituen berba Javier Madrazo sailburuak azaroaren 6an egin-dako bisitan. Eta iragarri zuten hurrengo urtean 14 etxebizitza sozial egingo zituztela herrian, Kaminerokua baserria zegoen lekuan. Gaineratu zuten 183 herri-tarrek zeukatela eginda eskaera.



**ASTEKODATUA**

**60**

**ETXEBIZITZA DAUE HUTSIK HERRIAN**

Ondo zehaztea zaila bada ere, Udalak errolda eta gutxieneko ur kontsumoa hartu ditu oinarri hutsik dauden etxebizitzak zenbatzeko. Hala, aurreikusi du gure herrian 60 daudela hutsik.

**BESTEKEESANA**

**“Dagoeneko badira hiru urte hona etorri nintzenetik eta ohitu naiz hemengo bizimodura. Jende asko ezagutu dut, lagun asko egin ditut eta egia esan, oso ondo moldatzen naiz.**

**Urtean bizpahiru aldiz joaten naiz Aretxabaletara. Entrenamendu asko ditugu eta jaiegun gutxi bidaia-tzeko. Herrira joateko aukera gutxi sortzen zaizkit urtean. Pentsa, uztailen etorri nintzen Xerezera eta Gabonak arte ez naiz Aretxabaletara berriz joango.**

**Ipuruan jokatzera berezia da. Lagunak joaten dira ni ikustera, Aretxabaletako jende asko ere bai. Aspaldian ikusi ez duzun jendearekin egiten duzu topo horrelakoetan eta polita da hori, berezia edozein jokalarirendako. Nik, behintzat, gustura hartzen ditut horrelakoak.**

**MIKEL ETXABE**  
‘Asteleheneko Goienkaria’/05-11-07

**HERRITARRENBERBAK / Edorta Mendieta**



*Zaharra berri*

**H**ilabete baino ez da pasatu kilometroak 2005 eguneko “txingotekeriatik”. Baina ahaztu dugu dagoeneko eragin zigun samina, antza.

Zenbait egunetan bailarako bazter guztietan izan zen esamesa. Ahoz aho ibili ziren egun hartako gehiegikeriak. Guztiongan sortu zen gutxi-asko zerbait egin beharreko grina. Garatu dugun gizarte honek etorkizun iluna duenaren konbentzimendua. Zurrumurru bat zen. Baina zurrumurru isila baino izaterik ez zuen lortu.

Jakina, autokritika egitea ez ba beti samurra izaten. Arazoa beste batena denean da erraza erantzukizunak eskatzea. Tamalez kasu honetan arazoak gizarte osoarekin zerikusia du. Gure gizartearekin.

Indibidualismoa, hedabideek bultzatzen dituzten ereduak, gurasoek seme-alabekin egoteko denborarik ez izatea, seme-alaben hezkuntza beste norbaiten eskuetan uzteko

joera, erruduntasun sentimendua gehiegizko babesarekin estali nahi izatea, neurritz gaineko permisibitatea...

Inguruan ditugun beste gizarte garatuengandik batere ezberdintzen ez dela eta berauek bezala gainbehera prozesu batean murgilduak gaudela onartzea ez da gustuko platera, ez horixe.

Erantzukizuna guztiona da. Gurasoena, hezkuntza sistemarena, aita puntakoarena, auzotarrena, kideena... Jokamoldeak berrikusi beharra dago. Giza balo-

reetan hezi eta bizi. Errespetuaren balioa berreskuratu. Askatasunean bizi, baina mugak daudela jakinaz. Galdakeria hutsean jausi ez gaitzen.

Baina zer axola. Euskal Herrian ez da horrelakorik gertatzen. Aldameneko herrian bai, baina hemen ez. Hemen oso normalak eta sanoak gara. Jatorrak. Gazteak garte dira eta nork ez du sekula parrandatxoren bat egin. Buelta berriz normaltasunerara. Hurrengo arte.

**“Inguruko gizarte garatuak bezala gainbehera prozesu batean murgilduak gaudela onartzea ez da gustuko platera, ez horixe”**

# Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11 / 230. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarrri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Tranbiaren proiektua laster egongo da ikusgai, eta alegazio epea zabalduko dute

IKER BARANDIARAN

**Jaurlaritzak aurkeztu dio Udalari tranbiaren proiektua. Hilaren 17an argitaratuko dute EAEko Aldizkari Ofizialean, eta bi hilabeteko epea izango da alegazioak aurkezteko. Tranbiak lau geltoki izango ditu herri barruan, eta kale bat oinezkoendako izango da.**

Iaz Jaurlaritzak tranbiaren proiektuaren lehenengo fasea aurkeztu zuen. Orain, berriz, bigarren fasea aurkezten dihardu, Oñati eta Eskoriatzari dagokiona, hain zuzen ere. Hortaz, Eskoriatzako Udalak jaso du behin-behineko proiektua, eta laster ikusgai jarriko du herritarrek iritzia eman dezaten. Hilaren 17an EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute eta hortik aurrera bi hilabeteko epea izango da alegazioak aurkezteko.

### HERRIAREN SARBIDEAN ALDAKETAK

Aretxabaletatik datorren bidean, Eskoriatzako sarbidea eraldatu egingo dute eta han biribilgunea jarriko dute. Aretxabaletatik Eskoriatzara noranzkoan eskuinaldean joango da tranbia eta bi errei izango ditu. Industrialdeari dagokionez, Ederlan ondoko biribilgunea kendu egingo dute eta bes-



Santa Ana eta Olazar kaleen arteko bidegurutzetik San Juan kale hasierara arteko zatian ezingo dira autoak ibili.

te bat jarriko dute horren aurretik. Horrez gain, industrialdera sarbidea egingo dute eskuinaldean. Era berean, Jaurlaritzak aurreikusi du Ederlan ondoko errekararen bihurtzea handitzea eta Esteibar ondoko industrialdeari sarrera jartzea.

Herri sarreran, berriz, autobideak biribilgunea izango du,

*Udalak jarriko du proiektua ikusgai, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte*

eta asmoa da tranbia, biaduktu baten bitartez, biribilgunearen gainetik igarotzea.

### LAU GELTOKI HERRI BARRUAN

Herri barruan tranbia ezkerretik joango da eta kiroldegi parean izango du lehenengo geltokia. Horren ostean, bidearen ezkerretik jarraituko du, erreti-

ratuen egoitza ondok. Bigarren geltokia Gorosarri plazaren parean izango du eta hirugarrena, Santa Ana parean. Horra heldu arte, tranbiak bi errei izango ditu. Eta Olazar eta Santa Ana kaleen arteko bidegurutzetik aurrera, berriz, bakarra.

Tranbiak Arana eta Aranburuzabala kaleetan gora egingo du eta HUHEZI baino apur bat gorago beste geltoki bat izango du, Tesa enpresaren parean.

### ONDORIOAK ZIRKULAZIOAN

Proiektuaren arabera, Gorosarritik Santa Anara bitartean trafikorearen norabidea ez da aldatuko. Santa Ana eta Olazar arteko bidegurutzetik San Juan kale hasierara zirkulazioa eten egingo dute, eta zati hori oinezkoendako eta tranbiarendako izango da, hain zuzen ere.

Autoan gorantz igotzeko Aranburuzabala kaletik jo beharko dute, eta kale horrek noranzko bakarra izango du. Hortaz, Aranburuzabalan behe-egiteko Dorletatik eta tren geltoki ostetik joan beharko dute, saihesbidearen paretik.

### APARKALEKU BATZUK KENDU

Bestalde, kiroldegi parean eta Aranburuzabala kalean hainbat aparkaleku kendu egingo dituzte.

## Bidegik eta Udalak batzarra egingo dute eguaztenean

I.B.

**Eguaztenean, hilaren 16an, izango da Bidegiren eta Udalaren arteko lehenengo batzarra. Donostian izango da, eta batzarraren asmoa da autobidearen gaineko elkarriketak berrartzea.**

Orain dela hainbat hilabete, autobidearen gaineko udal batzardea eta Bidegi haserretu egin ziren, eta elkarriketak

etenda gelditu ziren. Baina, orain dela gutxi, EA, EAJ eta EBk elkarrizketa egin zuten Aldundian, eta Bidegik onartu egin zuen Udaleko alderdi politikoekin batzarrak egitea.

### BATZARRAK, ZORTZI PUNTU

Eguazteneko batzarrean alderdi politikoen ordezkariak esku hartuko dute. Hainbat puntu landuko dituzte batzar horretan: batzarrak berrartzeko ahalegina egin eta datak zehaztea;

2004an udal batzordeak eta osoko bilkurak adostutako aldaketen gaineko eskaera berrartzea; adostutako 21 neurri zuzentzaileak; Zarimutz, Marin eta Apotzagako hondakindegia; lurzoruen denbora baterako okupazioak; ingurumenaren jarraipena; lanen eraginak eta neurri konpentsatzaileak, besteak beste.

Bidegirekin egindako batzarrean adostutakoa udal batzordean aditzera emango dute.

## 26 lagun aurkeztu dira garaje itxiak errentan hartzeko

I.B.

**Udalak lehiaketa publikora ateratu ditu 18 garaje itxi. 26 lagun aurkeztu dira, eta laster zozketa egingo dute. Udalak aditzera emango du eguna.**

Udalak kiroldegiko sotoan dauden bi solairuetako 18 garaje itxi zozketa publikora ateratu ditu. Batz bestea, 15 eta 16 metro koardro dituzte. Kontratuak lau urteko epe luzaezinean egingo dituzte, eta hileko 36 euro ordaindu beharko dituzte.

Dagoeneko bukatu da eskararak aurkezteko epea, eta Udalak aditzera eman du 18 lagun aurkeztu direla. Aditzera eman dituzte 15 bat egunetako epean egingo dute zozketa udaletxean.

### KIROLDEGIKO TABERNA

Bestalde, Udalak aditzera eman du inork ez duela bere burua aurkeztu kiroldegiko tabernaren ardura hartzeko. Hortaz, deialdia egin du interesa duenak udaletxera jo dezan lehenbailehen. Interesatuekin baldintzak negoziatzeko prest daude.

ELKARRIZKETA

MARIO PADILLA/TXISTULARI ETA DANTZA TALDEETAKO SORTZAILEA

*“Txistuaren soinua kalean entzuten ez bada, hizkuntzak moduan, galdu egiten da”*

IKER BARANDIARAN

**D**atorren asteburuan Udalak omenaldia egingo dio Mario Padillari. Besteak beste, txistu eta dantza taldeak sortu zituen Eskoriatzan, Otxandion jaio baina aspaldian Eskoriatzan bizi den langile fin horrek.

**Otxandion jaio, baina 1965ean Eskoriatzara etorri zinen. Zerk ekarri zintuen?**

Seme-alabek 6 eta 4 urte zituzten, eta ikusi nuen Eskoriatzan ikasteko aukera handiagoa zegoela: San Viator, Almen sortzekotan... Eta lanak ere izan zuen zeresana, kooperatiba indarra hartzen zebilelako. Ederlanen lanean hasi eta urtebetera Coprecira eraman gintuzten. 25 bat urte egin nituen han.

**Zuk sustraiak Eskoriatzan dituzu, ezta?**

Bai, amona Maringoa zen eta aitona Ibarraundi baserrikoa. Horrez gain, aitaren aitajauna perratzailea eta errementaria zen Eskoriatzan. Esan daiteke bueltan etorri nintzela hona.

**Zure burua eskoriatzartzat edo otxandiotartzat daukazu?**


Ni euskalduna naiz, eta euskararen alde egin dut bi lekuetan. Otxandio hurbil dago eta sarri joan izan naiz. Aspaldian, Domu Santuan, Gabonetan eta jai handietan joaten naiz.

**Zelan ikusi zenuen Eskoriatza heldu zinenean?**

Plazan ez zen txisturik entzuten, eta euskara gutxi egiten zen. Batzuk hasi ginen ikastola bat bultzatzen. Gaur egun euskara gehiago entzuten da. Herri erdal-duna izatetik badoa euskalduna bihurtzen. Umeek euskara ikasten dute, baina gazteleraz egiten dute. Gazteleraz egiteko joera handia dago.

**Zuk txistua bultzatu zenuen ez zuen inork herrian jotzen?**

Bazegoen norbait, baina nik



orduko alkate Ezeizarekin hitz egin nuen plazan txistua jotzeko, eta 1966an egutegi bat zehaztu genuen. Domekero Bandak jotzen zuenean, atsedendietan txistua jotzen nuen. Garrantzitsua da plazan txistuaren soinua entzutea. Hizkuntzak moduan, entzuten ez dena galdu egiten da.

**Zuk behintzat harrobia egin zenuen, urteetan ibili zinen-eta irakasle...**

Bai, Udaletxe azpian ibiltzen nintzen irakasten. 90 bat ikasle izango nituen guztira nahiz eta ni maisu ona izan ez. Ni sasi-txistularia naiz, neure kabuz ikasi nuen-eta. Gogoan daukat Otxandio dioko jaietara Demetrio Iriarte eta semea, biak oñatiarrak, txistua

*“Antzina Zigor Dantza egiten zuten Eskoriatzako plazan, hurriz makila batekin”*

jotzera joaten zirela. Demetrioki eman zizkidan irakaspen batzuk pare bat egunetan eta horrekin egin nuen aurrera. Orain dela 5 bat urte ibili nintzen herrian eskolak ematen.

**Gorosarri dantza taldea ere sortu zenuen?**

Bai, neskatila batzuk bazebiltzan, baina ez zegoen mutikorik. Hortaz, 5 eta 6 urteko mutikoen dantza taldea osatu genuen. Gerra aurretik dantzan ibilitakoek ere lagundu gintuzten, eta esan zidaten antzina Eskoriatzan Zigor Dantza egiten zela, eta hurriz makila batekin egiten zutela plazan. Saiatu nintzen soinua aurkitzen, baina ez nuen lortu. Jakin nuen bakarra zen biribilketa soinua zeukala.

**Oraindik txistua jotzeko ohitura daukazu?**

Bai, lagun artean, batez ere, jotzen dut. Athletic eta Realeko zaleen koadrila bat elkartu eta bazkariak egiten ditugu sarritan. Halakoetan jotzen dut.

ZE BARRI? Egubakoitzea / 2005eko azaroaren 11

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaindaria	943 71 44 07
Eskolategia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Claret laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Aurtoki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Talesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Erizaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhaitzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Berle (Zumarraga)	943 72 15 15
Berle (Gasteiz)	945 23 20 30
PSA (Arrasate)	902 10 12 10
Lanaldiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ZAPATUAN, SASKIBALOI PARTIDUA

Bihar, zapatua, 2. mailako emakumezkoen saskibaloitaldeak Askartza-Claret taldearen kontra jokatu du, 18:00etan.

MENDI IRTEERA, LUIS EZEIZAREN ESKUTIK

Erizako, domeka, Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkarteak Mendiola aldera mendi ibilaldia antolatu du. 09:30erako egin dute hitzordua, eta gura duten lagun guztiak joan ahal izango dira.

UMEENDAKO FILMA EMANGO DUTE IBARRAUNDIN

Etxe, domeka, umeendako film emankizuna egingo dute Ibarraundi museoa. Lehenengo hitzordurako *Harry Potter eta sorgin harria* filma aukeratu dute. 17:30ean izango da, eta sarreran euro bat ordaindu behar da. Euskaraz emango dute, eta 152 minutu iraungo du.

DATORREN EGUBAKOITZEAN, ANTZERKIA UNIBERTSITATEAN

Datorren egubakoitzean, hilaren 18an, Hika taldeak umorezko *Ixa* antzezlan eskainiko du HUHEZIN. Antzezlea Bergarako Mikel Laskurain aktore ezaguna izango da.

RIP-EN DVD-AK INKERNU TABERNAN SALGAI DAUDE

RIP musika taldearen *Punkaren 25 urteko historia* bizi DVDa salgai dago Inkernu tabernan 15 eurotan. Salgai dago, baita ere, Goienako egoitza guztietan.

**AZKOAGA**  
**ESTANKOA**  
943 71 48 77  
*Zure Zerbitzura*

**bedardenda**  
Tel.: 943 71 43 27  
**ESKORIATZA**

**Villar**  
**Ile apaindegia**  
Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
**ESKORIATZA**

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko azaroaren 11 / 171. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Bihar, zapatua, Sastiñan VI. Txirritola Partxis Lehiaketa

UBANE MADERA

16:30ean ipini dute lehiaketa-rako hitzordua. Nagusiendako zein gazteendako antolatutako ekimena da. Hala, bi mailatan banatuko dituzte lehiakideak: 6-14 urte bitartekoak eta 15 urtetik gorakoak. Sei sari prestatu ditu Txirritola Euskara Elkarteak.

Talde ugari espero dituzte bihar-ko lehiaketan, urtero izaten da eta halaxe. Gainera, Txirritola Euskara Elkartetik kontatu digutenez, nagusiek zein gazte-ek parte hartzen dute partxis lehiaketan.

### OHARRA ETA SARIAK

Txirritolatik ohar bat ere helarazi digute, lehiakideendako: lehiaketan jokatzeko, lehiakideek kontakteta (jolasari dagokion kontakteta) euskaraz egin beharko dute.

Horrez gainera, sei sari prestatu dituztela jakinarazi digute: 6-14 urtekoen artean, 60 euro eta garaikurra, irabazleari; 40 euro eta garaikurra, bigarrenari eta garaikurra, hirugarrenari.



lazko lehiaketako irabazleak: Txomin Elortza, Ainhoa Ruiz eta Iker Arriolabengoa.

15 urtetik gorakoen artean, berriz, 75 euro eta garaikurra emango diote lehenengoari; 50 euro eta garaikurra, bigarrenari eta garaikurra, hirugarrenari.

### TXALAPARTA IKASTAROA DELA-ETA

Bestalde, bukatu berri den txalaparta ikastaroaren gainean ere berba egin dugu Txirritolakoekin. Izan ere, ikastaroaren gaineko oso balorazio positiboa egin digute:

“Jendea oso-oso pozik dago. Oso giro polita sortu zen. 10-12 bat lagun-ek parte hartu zuen eta erabaki dute, hemendik aurrera, hileko azken barikuetan ahalegin-duko direla elkarrekin geratzen, ikasitakoa ez galtzeko”. Hala adierazi digu Txirritolako ordezkari Itsaso Lopez de Bergarak.

Alex Mendikute eta Edurne Uribarreniturrieta aramaioarrak izan ziren ikastaroko irakasleak.

## Ehunetik gora erretiratu, Alaiak elkartearen jaietan

U.M.

Gaur, barikua, San Martin eguna ospatzen dute aramaioarrek. Jaieguna dute herrian. Eta ez hori bakarrik, Alaiak Erretiratuaren Elkarteak bazkideei omenaldia ospatzekotan zen. Elkartearen presidentea Jabier Uribarrenek esandakoaren arabera, 115 bat erretiratut eman dute bazkarirako izena.

Lehenengo, mezarako hitzordua dute elkartearen bazkideek, 12:00etan. Horren ostean, goiza elkarrekin egin eta 14:00etan bazkaria dute, eskolako jangelan. Menua: hasierakoak, arraina, erredondoa, postrea eta kafea, puru eta guzti: “Aurten, behintzat,

purua erre ahal izango dugu, datorren urtean akaso ez”. Hala adierazi digu elkartearen presidentea Jabier Uribarrenek. Halaber, esan digu bazkalostean dantzaldia dutela elkartearen bazkideek; eta eguna borobiltzeko zozketa egingo dutela; Alaiak elkartearen asmoa da sei manta elektriko zozketatzea bazkideen artean.

### SAN MARTIN EGUNEAN

Horrez gainera, Jabier Uribarrenek esan digu erabaki dutela hemendik aurrera San Martin Egunean ospatuko dutela beti elkartearen bazkideen omenaldi hori: “Orain, San Martin ospatzen dugu uztailearen leian, eta asmoa da San Martin dagokion egunean ere ospatzea, urtero”.

*Bazkaria dute Alaiak elkartearen bazkideek, eskolan; eta gero, opariaren zozketa egingo dute*

*Alaiak elkartearen bazkideek erabaki dute urtero San Martin egunean ospatzea bazkideen omenaldia*



## Babes ofizialeko etxeak zelakoak izango diren

Olabarria enpresak bidali dio Udalari Pedro Inazio Barrutia kaleko babes ofizialeko etxeak izango duten irudiarrekin egindako muntaia. Alkateak esan digu oraindik behin betiko proiektua onartu egin behar dutela, baina, ez duela uste aldaketa handirik izango dutenik etxe horiek. Halaber, esan digu proiektuan azaltzen diren baina garaje gehiago egiteko proposamena bertan behera utzi dutela. 20 lagun behar zituzten eta 10ek eman dutelako izena. Beraz, 44 etxebizitza izanda, 44 garaje izango dituzte etxeok. / U.M.

## LABUR

### Farola Eguna ospatzeko deia egin zuten atzo

Ospakizun berri samarra da Aramaion Farola Eguna. Neguaren atarian egiteko antolatutako ospakizuna. Neguak dakarren iluntasuna zelanbait argitu gura dute egun horretan. Horregatik parte hartzen dutenek argitxoak eramateko ohitura izaten dute. Bereziki, San Martin Eskolako ikasleek eta haien gurasoek parte hartzen dute egun horretan, eta esan ziguten, atzo, eguna zirela egitekotan. Edozelan ere, albiste hau idaztean, oraindik ospakizuna egin barik zegoen.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (bandak)	945 44 53 40
Bonika	945 44 50 03
Udalekoa	945 44 50 16
Erasmintza (Arrasate)	943 79 71 99
Erasmintza (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxi eta autobusak	945 44 50 33
Udal buroioa	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubako Eskualdea	945 43 01 67
Sabiztekoak (Zubillaga)	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoak duten orduetan eskaeraren gabehera zerbizua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan delitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

## BARIKUKO ZINEMA: '2046'

Wong Kar-Wai txinatarrak zuzendutako 2046 filma aukeratu dute gaurko saiorako. 22:00etan hasiko da. 120 minutu ditu filmak. Fikziozkoa da, idazle baten gainekoa. Besteak beste, Tony Leung, Gong Li eta Takuya aktoreek lan egiten dute.

## DATORREN ASTEAN, KZGUNEA

Datorren astelehenean, azaroaren 14an, etorriko da KZguneko tutorea. 09:00etatik 13:00ak arte izango da. Horrez gainera, mintegi bat ere egingo dute: *Etxetik eros ezazu* Kasu horretan, eskolak izango dira 09:00etatik 11:00etara. Bestalde, hilaren amaiera aldera etorriko da berriro tutorea. Hain zuzen ere, azaroaren 28an. Egun horretan ere, 09:00etatik 13:00ak arte izango da Aramaion. Eta 11:00etatik 13:00ak arte, *Asteburu bat Euskal Herrian* mintegia egingo dute.

Interesa duenak esandako orduetan KZgunera joatea besterik ez du. Informazio gehiago behar izanez gero: 943 79 99 44.



ARTXIBOA

Arrasate Musikaleko zazpi txistularik egingo dute kontzertua Gantzagan.

## Gaur hasi eta domekara arte, Gantzagan jai

U.M.

Auzoko jaiak hasi dituzte gaur, barikua, Gantzagan. Hala, 21:00etan, kantu afaria egingo dute Izpizte elkartean. Hortik aurrera denetarik izango da, tartean Aretxabaletako abesbatzaren eta Arrasate Musikaleko txistularien kontzertua.


Bihar, 12:00etako meza Aretxabaletako abesbatzak kantatuko du. Gainera, mezaren ostean kontzertua egingo du. Bukatzeko, 13:00etan, *Vermouth dantza* egingo dute, Larrea Anaien eskutik.

Zapatu arratsaldean, berriz, mus txapelketa jokatu dute,

Izpizten, 17:00etan hasita. Eta bien bitartean, 17:30ean, umeek denbora pasa dezaten, zirko lanteria izango dute.

Bestalde, gauetan Jon Ostolazak eta Unai Andonegik girotako dantzaldia egingo dute eta gainera, ohera joan aurretik txokolate beroa banatuko dute jaietara joan direnen artean.

Eta Gantzagako jaietan ohienez, XXV. Txirringulari Igoera egingo dute, domekan. 12:30ean izango da. Hori baino lehen, 11:00etan, meza esango dute hildakoen alde eta gero txistularien kontzertua izango da. 13:00etan, berriz, *triki-poteoa* egingo dute eta 17:00etan, tute txapelketa.



## Bigarren granada aurkitu dute, Albinan

Joan den astean granada bat aurkitu zuten, eta oraingo astean, bigarrena. Bide zaharraren bazterrean aurkitu dute oraingoa, egoera eskasean; eta Ertzaintzak esan du litekeena dela gehiagoko egoera. Aurkituz gero, ez ukitu eta Ertzaintzari abisatu. /U.M.

## Bihar buzkantzak izango dira, trikitilariek oparitura

U.M.

Trikitixa Eguna ospatuko dute bihar iluntzean, trikitia eskolakoek. Ohi duten moduan, ospakizunaren barruan, buzkantzak eta txikitoak banatuko dituzte herritarren artean, Bizente Goikoetxea plazan.

San Martin zaindariaren eguna zaindu egiten dute herriko trikitilariek, Trikitixa Egunaren bitartez. Hala, bihar, zapatua, 18:00etan hasiko dira egun hori ospatzen. Kalejira egingo dute orduan, Trikitixa Eskolako ikasleekin. Betiere eguraldiak laguntzen bada. Hala ez bada, plazako

arkupetan jardungo dute "infernuko hauspoak" eta erritmoa markatzen duten panderoak bizi-bizi eragiten.

## ASTEBURUKO EGONALDIA

Trikitilari gazteek kalejira egiten duten bitartean, plazan buzkantzak eta txikitoak emango dituztela jakinarazi digu Trikitixa Eskolako Mila Kortabarriak. Apurtxo bat geroago, trikitilariek, euren izango dute luntza, Ehiztari Txokoan. Eta luncharen ostean, 19:00ak edo 19:30ak inguruan, saltzen ibili diren txartelen zozketa egingo dute. Nekazal turismo batean egonaldia oparituko diote irabazleari.



TXIRRITOLA

Iaz ikasle dezentek parte hartu zuen Trikitixa Egunean; argazkian, kalejira egiten.



## Eskolakoak Gantzagan, Debaren jaiokuan

Seigarren mailakoak Gantzagan izan dira, Deba ibaia non jaiotzen den eta hango museoa ikusten; Urkulu ezagutzeko ere aprobeztatu dute; uraren gaia lantzen ibili dira eta azkenaldian. Bestalde, esan digute azokan 400 euro batu zituztela. /U.M.

# Urtatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11 / 27. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorlora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

## Domekako San Milixan ferian, besteak beste, Garestik ekarritako piperrak erreko dituzte

XABIER URTZELAI

Domekan hamahiru urte egingo ditu gatzagarrek San Milixanetan antolatzen duten artisau feriak. Aurten ere hamabost artisauk jarriko dute postua; gehienak pilotalekuan, baina nafarrek kanpoan erreko dituzte piperrak.

Izan ere, hori da aurtengo berrietasunetako bat, Garestik (Punte la Reina) etorriko diren Tomas Latasa eta beste lau lagun piper erreko egiten ibiliko dira-eta, arkupeetan. Horretarako bi su egingo dituzte, eta bistan da pilotaleku barruan ezingo luketela horrelakorik egin. Gainera, postu handia ekarriko dutenez, leku gehiago behar.

### GARESKO PIPERRAK

Tomasekin izan gara aste barruan, eta Gatzagara nola iritsi azaldu eta gero, domekan egingo dutenaren berri eman digu: "Joan den astean Mungian (Bizkaia) izan ginen, eta bertako bizilagunak harrিতuta geratu ziren piperrak nola erretzen ditugun erakutsi genien. Egia esan, ez dauka misterio handirik, baina jende askok ez du sekula ere ikusi. Makina berezi bat eramango dugu horretarako, eta aurrez zer-bait esatearren, gaztainak erre-



Produktuak saltzearekin batera, artisauak lanean ibiliko dira domekan.

ASTELEHENEN GOIENKARIA

tzeko danbolinaren antza duela esango dut". Piperrak probatzeko ere emango ote dituzten galdetu diogu: "Ezingo dugu horrelakorik egin, ez dugu-eta piperrak zuritzeko astirik izango. Horretarako lagun gehiago behar dira lanean. Gure asmoa da piperrak nola erretzen ditugun erakutsi, eta baita piperrak saltzea ere.

Izan ere, Euskal Herriko jende asko gerturatzeko da Garesera piperrak erostera. Baliteke, gainera, piperrekin batera babarrunak ere eramatea.

### ARTISAUAK LANEAN, ETA SALTZEN

Gainerako hamalau postuak pilotaleku barruan jarriko dituzte. Piper erre usaiak girotuko du pla-

za, baina horrekin batera beste hainbat eskaintza izango dira. Felix Ajuriak eramango du gazta, Mañeko baserrikoek egingo dute artisau gozogintza, eta Gatzagako Sorginen eskutik egingo da talo eta ardo onena. Baina dena ez da jateko izango. Carmen Bollar izango da euskal buztingintza erakusten, eta Maika

Herasek eramango du kosmetika naturala. Horiakin batera, zilarrezko bitxiak, oihal zatiekin egindako lanak, ezpelarekin egindako lanak, artoarekin egindako alfonbrak, torneaketa eta beste hainbat produktu eta lanbide egongo dira erakusgai. Hala, erosketak egitearekin batera, artisauak lan nola egiten duten ere ikusi ahal izango da domekan Gatzagan.

### AUTOBUSA DORLETATIK GATZAGARA

Udaletik gogorazi gura izan dute domekan Gatzagara datozenek Dorletako Santutegian utzi ahal izango dituztela autoak; izan ere, Dorletatik Gatzagara autobusa egongo da 09:00etatik 13:00ak arte. Horrek erraztu egingo du egun horretan herrian egon daitezkeen zirkulazio arazoak, eta baita aparkalekuena ere.

### GATZ MUSEOA ZABALIK

Gatz museoa zabalik egingo da domekan. 11:00etatik aurrera egingo dituzte bisitak, baina normalean baino jende gehiago ibiliko denez, ez dituzte ohiko ordutegiak errespetatuko; taldeak osatzearekin batera antolatuko dituzte bisitak. Eta, ohiko bisitekin alderatuta berezitasun bat edo beste ere egingo dela aurreratu digute gatz museoko arduradunek.

## Diputazioak eta Udalak hiru proposamen aurkeztu dituzte

X.U.

Martitzenean batzartu ziren gatzagarrek, garraibide publikoaren arazoaren gainean berbetan jarraitzeko. Udaleko ordezkariak Diputazioak proposatutako hiru irtenbide eman zituzten.

Lehenengo proposamena da goizetan gazteak eskolara eramaten dituen autobusa erabili ahal izatea. Aukera horrekin, gatzaga-

rrek 08:30ean Eskoriatzara jaitsi ahal izango dute, eta 16:30ean herrira igotzeko autobusa izango dute. Eta horrekin batera, Pesako autobusak egunean birritan igaroko dira Gatzagatik.

Eta hori da hiru proposamenen artean fundamentu gehien duena, beste bietan herritarrek ibili beharko lukete-eta gora eta behera, autoekin zerbitzu hori eskaintzen, horretarako lizentzia bereziarekin, ala barik. Gainera, Diputazioek jarri duten argu-

dioetako bat izan da Gatzagan automobil asko dabilela, eta gaitza dela autobus gehiago jartzea. Eta, herritarrendako kontraesana da hori; izan ere, Diputazioak garraibide publikoaren alde egin behar dela esaten duen bitartean, autobusa ez jartzeko aitzakia ederra erabiltzen dute: auto asko dabilela, hain zuzen. Gatzagarrek gutuna bidaliko die Diputazioekoei, eta bitartean, pankarta jarriko dute pilotalekuaren horman, garraibide publikoa eskatzeko.



Autobusak eskatzeko pankarta jarriko dute asteburuan Gatzagan.

Aitzorrotz elektrizitatea  
Alboka jantzi denda  
Angelines fruta denda  
Aretxabaleta iturgintza  
Artzubi etxetresna elektrikoak  
Asensio jantzi denda  
Begiondo optika  
Brasileña akeita etxea  
Errekabarren fruta denda  
Gemes edertze aretoa  
Gertu janari prestatuak  
Haurrak jantzi denda  
Iber loteria  
Imanol harategia  
Iosu harategia  
Iriarte mertzeria  
Irudi ile apaindegia  
Jauregi okindegia

## Udazkeneko kanpaina 2005

500€-ko 5 erosketa-bonu  
Irabazleak:

**ANTONIA NAVARRO**

**AURELIO BLANCO**

**DANIEL ARRIOLA**

**DAVID TORRES**

**JUANA MARI ARREGI**



Jon Diaz harategia  
Katibos ume oinetakoak  
Kioskoa kioskoa  
L-10 ile apaindegia  
Lasai masajeak  
Leibar arrandegia  
Leintz mertzeria  
Leniz liburu denda  
M<sup>a</sup> Jesus argazkiak  
M<sup>a</sup> Karmen oinetakoak  
Maritxu mertzeria  
Martin bitxitegia  
Nerian loradenda  
Orly pub  
Txilarra belar denda  
Zainduz osasuna/fitnessa  
Zare jantzi denda  
Zubia oinetakoak

LUKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## EXPRESS TABERNA

Santa Kurtz 16 | Aretxabaleta | Tel.: 943 79 23 43

**Berriz  
zuekin**

Asteburuetan



11:00etatik aurrera zabalik

Pintxo beroak



# Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin  
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81  
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



**BERRIKUNTZAK:**

• **PROGRAMAZIOA**

Etenik gabeko programazioa  
(13:15 / 00:15)

• **INFORMATIBOAK**

Orduoro eta inor baino lehenago  
(laurden gutxi guztietan)

**SAIO BERRIAK:**

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa

## TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**